

ITXAS-AIZE

**Lan au Eusko Jaurlaritzaren 1987'ko
bekadun lanetan egiña da.**

Augustin Zubikarai
Legerako gordetza: BI - 2604 - 89
I.S.B.N.: 404-5753-7
Irarkola: Flash Composition, S.A.
Azala: Felix Beristain

AITZAKI-MAITZAKI

Itxas ertzean jaio nitzan. Ementxe bizi. Eta bertan nai neuke il.

Ez nitzan mariñel, arrantzale, jaio. Bai tarteko. Nire osaba Eustasio bat, Zubiaurretarren ainbat lauki ederretan agertzen dan arrantzale jatorra zan.

Umetan bere etxean ibilten nitzan, eukan baporeko soka eta abarrekaz jolasten. San Andres zan lenengo bere bapora, gero deun Ander.

Aitaren aldetik ba neukan osaba bat, itxas kapitana

Gure amak bederatzi seme-alaba euki zitun, gelan eukan san Roman Nonnatok enrukia artu arte. Aita arotza zan. Amak ezin bakarrik danok zaindu ta arrantzale etxe bateko neska, Sotera, izan zan zain-tzaille. Arek bere etxera eroaten genduzan. An "Txaket" enean ezagutu nitun tretza-enpatxu, tretza enkar-natze eta abar zer ziran. Oraindik gogoan daukat karnatatzako, amuak beteteko emoten eutsen antxoa txiki gazituak, zelako usain ederra eukiten eban. Etxeko tokirik argitsuenean gertuten ziran aparixuak, antxoaren ur-gazitu eta koipeak beia loitzeko kezka barik. Orretarako zan gero lejia-ura.

Antxustegineko Simon eta Soga'nean be etxeko nitzan. Sukalde, sarrera eta ia dana zan tokiko balkoi batek parrokiaren oiñarrietako karkabara eukan ikus-pigitik ikusten nitun txalopa andien aga, belaki eta abar.

Umetatik daukat arrain sundaren bildurra galduta. Amar urte baiño len, antxoari burua kentzen ibilia naz fabrika bat baiño geiagotan, beste umeekin batera, antxoari burua kentzea umeen zeregiña izaten zalako.

Antxiñakoa da, ikusten danez, itxas eta arrantzale bizitzako nire ezaguera.

Eta gero, bizi ezarren, errezago ikusten eta igarten dira lengoen ondorenak.

Gure gerra osteko berrogoi urtetan, sar saritu arte, arrain fabrika baten lan egin neban. Guk fabrika esaten dogu. Lengoa "kabana" deitzen eutsen orrelako lantegiei. Arrain tratu eta goraberak, arrantza bizia, emakume eta gizon iangille artean igaro eta biziteko ogibidea euki neban.

Eta... garrantzitsuena, arrain usaiña, bere zabalera gustian, atsegin izan jat.

Ortik beti euki dodan zaletasuna itxas berbeta jaso eta aztertuteko. Asko erakusten daben berbeta da, bizitzako irudimenez betea

Emen agertzen diran esaera, itz-joko, itz-egitura, pentsakera eta abar, gaur itxas errietan bizi doguzan azalpen batzuk baiño ez dira.

Geienak arrain sunda dauke; beste batzuk itxas aizea. Ez da sakona nire lana. Autortzen dot. Ez naz gramatikari. Jaso ala artutako berba eta deitura ta esateko erak dira. Brasta-brasta, ardurabarik esanak asko. Baiña nire lan onek batzuei mesede egin lei; beste batzuei oriotzak suspertu. Edozetara be, nik, nire bizitzako "kosteria" aurrera doan ure onetan, itxas berbetan lortu dodan arrantzuaren zati bat euskal Kofradiko benta-etxera ataraten dot.

Ez da arrain fresko-freskua nirea. Denporetan batu eta gordea da. Baiña arraiña, gazitua ... atsegiña izaten da eta nire gogoia arrantza eta itxas berbetako ikastunei, eta azken baten euskeraren sail aberats, andi eta jator baten agerpenak emotea da


Izen bat emotearren, arrain ezkata eta itxas aize, ezarri dausat. Izena da gitxiena. Obeago da bizitzan zerbaiterako baliotea

Azkenez esker txarreko izango nitzake jakingarri asko batzeko erreztasun eta laguntasuna emon dautan Andoni Basterretxea abadearen izenik agertuko ez ba neu. Berari esker "mariñelago" egin al izan naz gure itxasertzean ainbat gauza eta erabide ezagutu eta maitatzen.

A. Zubikarai

Esaldi eta Iztegi antzerakoa

ITXAS ETA ARRANTZA BIZITZAKO BERBETAKO ERA BATZUK



ABOR-ESTIBOR. (Ezkerretik eskumara)

Arrantzaleak txalopako ezkeraldiari, *aborra* deitzen dautse eta eskumaldiari *estiborra*. Iñoiz baporak edo treneruak erabilten dituen batel-txiki edo txanel deiturakoetan gizon bakarra joaten da erramutan (arraunean) ontzi orreik atzean eukiten daben tolete bakarri eutsita edo zulo bakarrean erramuaren gerria sartuta, eta arraunketa txiki eta biziak eraginaz erabilten dau bateltxoa. Arraunketa era orreri "abor-estibor erramutan" deitzen dautse.

ANGIRA BALTZAK. Andra lizun, bizi nasaiko emakumeakaitik esaten da

"Aingira baltzak ikusten izango ziñan zu!" Au da, emakume "alaiak" ikusten. Aingira baltzak, basatza eta loietako arraiñak izaten dira. Erreka zikin datorrenean artzen dira sarri.

Orígaitik beste "aingira baltzak" ori.

Orrelako aingirak arrantzaten diranean laban eta likiñak izaten dira. Orígaitik aingira baltzak baiño ziriñago eta antzerako esaerak.

INGERU GUARDAKUA, LOTARA NUA. LOTATIK NETORRALA TOPATU NITUAN IRU INGERU, BAT BURUTIK, BI OÑETATIK.

(Umetako kantua)

AITAK PARTILLA ETA AMAK GILTZA.

Arrantzaliak alogerari edo itxasoko irabaziarri diru-partilla deitzen dautse. Ortik dator esaera: Aitak daroan alogera, amak gorde edo zainduten dauala adierazteko.

AITITA MORIKILLO, KEDARREZ PIPIA, ARETXEK ERRE DAUTSO ZURRAREN PUNTIA.

Umetako kantua.

AITITA TA AMUMA BIXAK EGURRETAN, AIZKORIA GALDU ETA BIXAK ERRIXETAN.

Umetako kantua

AKILLA'KO INTXAURRAK ZARATA ASKO, ANTXUBIXA'KUAK NAUSI.

"Akilla" Ondarroa'ren gaiñetxoan dagon baserri eta mendia da

"Antxubixa" Arantzibia torreatari deituten joko. Esaera au batsuen ontasun eta edergarrei indarra kentzeko erabilten da.

ALGARETEKO LEMAKANIA.

Lemakania, izatez, lengo ontzi zarretan zuzenbiderako erabilten zan egurra edo burdin eutsigarria izaten zan. Ortik esaera au, zuzenbide bako, nortasun bako edo beti aidean dabillen norbaitegaitik erabilten dana. Zuzenbide bako gizona

ALPER, SEKULA EZ ALBER.

Jokolari alperra sekula ez dala elduten jokoak bardindu eta azken sakea berak artzera.

ALUA ETA PUTIA, AMAREN ULTZIA.

ALUA TA PUTIA, AMAREN KURUTZIA.

Neska lizunak amaren burukomin izaten dirala adierazteko.

AMA ZEUENA.!

Esaera destaintsu lez erabilten da. Iñoiz ez da esaten *Zure* ama, beti *zuena* baiño.

Gero, destaiñez eta amorruz erabilten dira beste antzeko oneik: AMA ZEUEANAN TANGIA (tangia)! (Tangia sabel ordezt erabiliaz) edo ta AMA ZEUEANAN MOÑETI (Moñetia), moño txikia.

AMA TA ALABA BIXAK MARI-MUTIL.

Ama eta alaba biak kaletar dirala adierazteko, edo mutil nai gizon zale dirala esan nairik.

AMA BIRGINA GARDOTZAKOARI BEZPERAK KANTATU EZKERO, JAKEA LEPORA.

(Ama Birgiña Gardotza'koa, Ondarroa eta Berritu artean dagon ermita baten dago, Gardotza baserria jotzen. Eta Iraillean izaten da bere jaia. Ortik otzak datozan iragarki ori.

AMA SANTA INES BART EGIN DOT AMETS. ONA BADA BIXON PARTEZ, TXARRA BA DA DUALA BERE BIDEZ.

Umetako kanta.

**AMA SANTISIMIA, NUN DOZU SEMIA?
KURUTZIAN ULTZEZ TA ARANTZAZ JOSIA.**

Umetako kantua. Egunean iru bidar errezatu ezkeroko ez dau parterik iñun, zeruan ezik.

**AMABI, TXAKURRAN BUSTENAK KANA BI,
AMAIKA, NAI BESTE LUKAINKA.
AMAR, KATUAK MAR MAR ...**

Umetako kantuak.

**AMARRAK JO DABE TA AMAIKAK JOTEKO,
GURE LAPIKUARI AZIA SARTZEKO,
AUXE DA LAPIKUA, AUXE DA AZIA,
NUNDIK ETORRI ZARA ZU KOZINERIA?**

Umetako kanta. Destaiñez lapikoa zaindu barik, sukaldetik kanpora dabillanagaitik esate da.

AMUA.

Arrantzarako erabilten dan gaillua. Toki batzuetan *garranga* be deitzen dautse.

Amuen artean ainbat bereiztuten dira:

Amu lapurra,
txikia eta okerra izaten da.
Atun amua,
egaluze, egalabur eta atunkietan erabilten
dana.
Besigu-amua
besigutarako erabilten dana.
Kakua,
arrain andiak uretatik txalopara jasoteke era-
bilten dana.
Karpina.
Lau amugaz alkartatuta osotzen dana.
Katzikamua,
amurik txikiena.
Lebatz amua,
lebatzetan erabilten dana.
Proostua
amu lapurraren antzeko.
Txillamua
pantxotan erabilten dana.
Atxamarta,
lau amugaz alkartuta osotzen dana. Batzuk
karpiña.
Txibikoraiña.-
Txibiak arrantzateko gaillua, amu fiñez bete-
rik, alkartuta ipinten dan koraiña, gora ta
bera ibiliaz bertan jausten diran txibiak jaso-
teko.
Hondarribian aboriña deitzen dautse. Beste
batzutan aguariña.

AMUAREN ERABIDEA.

Amuak, bere okerune laburragoan, aurrean,
koska bat atarata eukiten dau, arraiña, bein
bertan jausi ezkeru, urteteko sailtasunez,
ezin askatuta geratu dedin. Orreri kakoa
deitzen dautse.
Atze aldean, edo okerrune luzeagoko goi
aldean, zapalune bat eukiten dau. Orreri
amupala, edo ta artza-abi deituten jako.
Amuak, sokari edo tantzari lotutea, iru lan
eratan deitzen da:
Amua jo,

Amua iratsi
Amua ezarri,
Amua lotu, edo ta
Artzabia emotea.

ARTZA.

Amuaren paliari, lotzen jakon zati txiki bat.

OLLAUA.

Artza ziurtatzeko bere gaiñetik lotzen jakona.

AMUEN BURUKOMINAK.

Amuak ba dakiez burukomin asko emoten, batez be eskuetan sartu edo beste nunbaiten sartzean. Mintsu izaten da ataratea, kakoa barruan geratu naian egoten dalako. Baiña ba dago beste burukomin bat be amuak emoten dabena. Nastea. Oneri arrantzaleak gure inguruan MOKOLOIA deitzen dautse.

ARRAINAK AMUETAN.

Aparixua uretan dagola, arraiñik ba dabillen ikusteko, aparixu orreik eroaten daben kortxo izaten da onena. Arraiñak amuan egiten daben ikutua, kortxoaren egoeran igarten da, bai eta kortxorik egon ezik, kañabera bako aparixuetan, arrantzaleak eskuko takadatxoetan igarten dau. TAKADAKA dabillala esaten da.

AMUA ESPANEAN.

Amua espanean daukola esaten da, norbait besteren baten bildurrez larri dabillanean, edo zerbaiten kezka igarten danean. Esan be egiten da bein amua espanean erabili edo espanean jotako arraiña, bildurti eta kezkatu ibiltzen dala norbait ikustean.

**AMUA ESPANEAN ETA MARMARREAN,
TRAPUZARRAK URTENGO DAU BASTERREN
BATEAN.**

edo ta

TRAPUZARRAK AIDEAN.

Bat zerbaiten kezka egon eta barriketan dabillanean, guzur eta abar ibiliko dirala jardunean.

**ANTXOA SASOIA.- SAN JOSE LORAK ZENBAT ETA
LENAGO, ANTXOA ARINAGO.**

Giroa epeltzen datorrelako.

**ANTXOAREN POZA.- PASKOA POZTUTEKO,
BETOR ANTXOA ASKO.**

ANTXOA GAINEAN, PASKO ASTEAN.

ANTXOA ARRANTZATEKO ERAK:

**ARDORAN,
BLANKURETAN,
MANJUBATAN
GORRIXETAN.
SARETAN.**

lenengo lau eratan arraiña inguratuta arrantzaten da, moltso edo pilloetan batu eragin ondoren.

Bostgarren era, saretakua, oiturazko erabi-dea zan, gaur ia zearo galduta.

ARDOREAN:

Arraiñak berez daukan posporoagaz, itxas gaiñea zidar bitsetan lez lagaten dau, eta ortik igarten dabe nun dagon arraiña eta orduntxe zabaltzen edo botaten dabe treiña, ingurutzeko. Gabaz izaten da ardoreko arrantza edo ta iilunpean. Gau itargitsueta, gaitz izaten da onetan arrantza onak egitea.

MANJUBAN. (Hondarribian MAINUAN.

ARRAIN GAIZTOAK, au da **IZURDEAK,** itxasertzean agertzen ziranean, arrantzaliertzat laguntzaillerik onenak izaten ziran lengo denporetan. Euren jarraian ibiltzen ziran txalopak, eta izurdak arraiña ataratea lortzen eberanean, au da arrantzateko eran pillotuta edo alkartuta lagaten dabenean, manjubia dagola esaten da.

Izurdeak orduak egiten zituen arrain billa. Amas estuka azalera urten eta bereala urparrastadak gora jaurti ta barrero sartuaz, ostera be beste tokien baten agertu eta era orretan ebiltzanean, arrain txikia inguruan erabillen ezaugarri izaten zan.

Arrantzaleak atsegiñez jaten dabe izurdaren bat, baiña galerazota dauke arrantzatea, eta

uste-barik zerbaitegaz jo eta sarean gertaten danean bakarrik artzen dabe. Ba dakie eurentzat izurdak arraiña billatzeko lagunik onenak dirala.

BLANKURETAN.— Arraiña azalean moltsoka banatuta agertzen danean ikusten diran moltsoei blankurak deitzen dautse. Denpora beroetan agertzen da orrela geien bat antxoa eta urari be kolorea aldatu lez egiten jako. Orrelako arrantzari blankuratako arrantzza deitzen dautse.

GORRIXAK.— Antxoa azalera agertu barik, baiña igarteko eran, urak kolore gorri baltza agertzen dabenean, "gorrixak" dagozala esaten da, eta orrelakoak igarten dan inguruetan treiña zabaldu eta arrantzateari, **GORRIXETAKO** arrantzza deitzen jako.

SARETAN. Erabide au, gaur ia galdua, illuntzean portutik urten eta gaba egitean sareak itxasoan "bota", au da zabaldu, eta ordu batzuk itxaron, arraiñik sare maillatan sartzen ete zan. Egun sentiagaz sareak jaso ta uts edo bete, portura goizean, illuntzean barriro urteteko.

Saretan arrantzaten dan arraiñak, treiñekuak baiño lan geiago eskatzen dau.

Saretako arraiña bana-banaka askatu bear izaten zan, eta "maluzkatu barik", au da arraiña apurtu barik, al zanik osoen, bere narru edo azala be urratu barik atarateko eran.

Sareak trein eta bolintxak baiño laburragoak ziran, ari meiago ta mailla andiagoko.

Arrisku andiko arrantzatea izaten da, batez be ekaitz eguna gertaten zanean, edo ta batbateko galerrenak itxasoan sareak zabaldua gero gertaten ziranean.

Ondamendirik asko orrelako arrantzza sasoian gertatu izan ziran. Eta iñoiz gizonak salbatu arren, sareak itxasoan galduta etorten ziran eta iñoiz urrengo urteeran billatua-

rren, sarri gertatu ziran sare galtzeak. Inoiz arrain geiagi egon eta sarean kateatutako arraiñen pixuz be galdu zituen sareak.

Orrelako sareak, etxeratzean, kaleetan egoten ziran agaetara zikatzero atara bear izaten ziran eta orrek be lan andia emoten eban, batez be arrantza eguna gertatu, sare-maillatatik arraina askatzen eguerdirarte jardun eta oraindik be sareak zekatzero eskegi eta gero illuntzean barriro urten bearra egoanetan. saretatik arraiña atarateari "despixka" deitzen jakon, bear ba da erderazko "despescar" berbatik atarata.

Saretako arraiña naigo izaten eben "fabrikanteak", arrain bardintsua izaten zalako eta itxasoan odoluztuta etorralako. Manjuba, gorri eta blankuretako arraiña, ittota etorten zala esaten eben. Baiña denporekaz orrelako zer-esan eta aitzakiak galdu edo astu ziran.

(Oarra: Bein arraiña arrantzaleetatik fabriketara eroaten daneko egitura, izendegi eta abarrei buruz gertaten dana, EUSKERAREN ESPAZIOA (I.K.A) liburuan agertu neban.)

ANTONIO POLONIO PASA POR AQUÍ
AKILLAKO TXAKURRA DANTZAN DABIL

Umeen jokotean kantuz erabilten dan esaera.

ANTONIO ZARRA, AXE ZAN GIZONA,
IRU MILLA ALKONDARA, BATERE EZ ONA.

Gizon baldar, ganorabakoagaitik esaten da.

APARRA TA BITSA BAIK ANAI ARREBAK.

Bat batera nai bestera arro ikusten danetan erabilten dan esaera da.

ARAKINAREN ETXEAN OKELA,
MARINELAREN MAIAN BERDELA.

Bakoitzak ze ogibide, jana be alako. Inoiz besteen aberats uste eta mariñel eta arranzalien pobretasuna erakusteko edo adierazi nairik be erabilten da.

ARDI URTE, ATUN URTE.

Ondarroan ardia deitzen jako arkakuxoari. Origaitik soinean nai jantzietan ardi asko

batzen danetan, erabilten da esaera au. Ez dauka zer ikusirik artzaiñen ardiekin.

ARRAKETA MARRAKETA KITARRIA, BOTIKAXUAN ALABIA.

Ume jokoa. Espanetan, agiñekaz utsal, alkartutako soka bat ipini eta alaxe besteren bat sokeari ten da erriaka jardun, naastu artean.

ARRAIN ANDIAK TXIKIA JAN.

Beti be indartsuagoak bestea iruntsiten dauala adierazteko.

ARRAUTZA GORRINGO DA GURE DOMINGO.

Gizon zintzoa, ona dala agertzeko.

ASTERRIKAN GUZURBAT ESAN ORDUKO, GOROZIKAN MANDOTUKO.

Guzurra arin zabaldu eta arin aunditzen dala esan nairik.

ASTO ASTOKA.

Umeak lau ankan jarrita, besteak gaiñetik igaroten. Ume jokoa.

ATOIAN BE EZIN EKARRI.

Batek moskor andia artu eta etxera ezin eroanda dabiltzanean esaten da. Au da, lotuta edo besarpekatuta be ezin eroanda.

ATXAMARTEKO ARRAINA.

Atxamarta iru-edo lau amu alkarregaz lotuta erabilten dan tresna da. Arrain asko dabillan tokietan erabiltzen da, kamata edo amuski barik, beratu ta gero tartetan bizi-bizi gorantzen egiñaz, amuak jotzen dituen arraiñiak bertan lotuta geratzen dirala

ATUSTE MATUSTE, FOTEZKO TORRADA BARIK MAI UTSE.

Oiturazko da kandelari egunez aiezko torradak egitea, postretzako, eta Aratustean fotagaz egiñikoak. Ortik dator esaera au.

ATZAPAR, ZURE LEKUAN ZENBAT ATZAPAR?

Umetako jokoa. Batzuk, asierako atzapar orde, a /a *mar* esanaz asten dabe jokoa. Bat orma baten alboan makurtuta eta bestea, bere gaiñean jarrita, atzamarrak kontaten

ipini eta itaun ori egiten jarduten da, bekoak igarri arte. Gero aldatu ta bekoa goian jarrí.

AUTS EGUNA, LAPAK JATEKO EGUNA.

Aratuste ondoren dator Auts-eguna, Garizumako sarrera. Arrantzaleak oiturazko eben autsa artzera elizara joatea. Eta gero, aitzetara osterata bat egin, lapak batu eta garizumako legea, aragi ustea, era orretara astea.

ATZAMARRA EMON ETA BESUA ARTU.

Zerbait emon edo ta baimendu, eta ordezkoski geiago artu. Txarto oitu. Gaiñez egin.

ATZEKUA TENTE TA GERTU.

Atzekua, patroia deitzen dautse txalopetan. Esaera onek, patroia prest dagola eta gertu egoteko adierazoten dau.

AZKEN DATORRENA POPA USTEL.

AZKEN DATORRENA KAKA BRE.

Azken esaera biok, mutiko jokoetan erabilten genduzan, azken ebiltzanei irri lez.

AZAK JAN ETA KORROSKADATAN LAN.

Azak lanerako indarrak ez eukela esateko erabilten eban gure aitatak esaera ori.

AZTIRO ETA SEGURU OBETO, ARIN ETA KOASTA APURTZEA BAINO.

Portuan "maniobrea egiterakoan esaten da.

ARRAIN BERBA (ITZA) ETA BERE INGURUA.

ARRAIN ADURRA— Euri likiñari esaten dautse.

ARRAIN BITSA.— Sirimiri eta antzekoari.

ARRAIN BALTZA.— (Perloi baltz, sapu baltz eta arrain sendoei.)

ARRAIN BALTZAIA.— Dontzella, julia eta antzekoak.

ARRAIN BERDEA.— Arrain urdin edo ta koipetsuari.

ARRAIN BURU.-

ARRAIN ESKAMA.-

ARRAIN EZPIA— (IZPIXE) Arraiñaren azur zorrotza.

ARRAIN GAIZTOA.— Kaelak, tollak, marsopak eta abar.

ARRAIN GORRI— Neskazar, perloi, urraburu eta abar.

ARRAIN GURBILLA.— Muxarra, txopa eta antzekoak.

ARRAIN KOIPETSU — Arrain urdiña, berdea.
ARRAIN MIÑA — Ezpata, lantzoia.
ARRAIN SUGE— Itxas sugea.
ARRAIN SUNDA.— Arrain-usaiña.
ARRAIN USAIÑA.— Arrain-usaiña.
ARRAIN TXINGOLA.— "Cinta".
ARRAIN TXIROLA.— Putxanoa.
ARRAIN ZAPALA.— Egituraz zapalak diranak.
ARRAN ZURI.— Arrain giartsua.
ARRAIN ZORROTZ.— Ao zorrotza eukiten dabena.
ALBAKO ARRAINA.— Goizaldean agertzen asten dan arraiña.
ALFA ARRAINA— Balio bako arraiña. Arrain uruna egiteko bialtzen dana.
AMU ARRAINA.— Amukin artzen dan arraiña.
AITZ ARRAINA.— Aitzetan eta arriartetan artzen dana.

ARMIARMA ARRAINA.— Salbera, xabiroia, eskorpioa.
ARRASTEKO ARRAINA.— Arrastera eran arrantzaten dana.
AUNTZ ARRAINA.— Kabra, kabra txiki eta abar.
AZALEKO ARRAINA.— Azalean arrantzaten dana.
BATER ARRAINA.— Bateletan, itxasertzean arrantzaten dana.
BASA-ARRAINA — Ondo basatsuetako arraiña.
BITS ARRAINA.— Korkoi, lasun eta abar.
EGA ARRAINA.— Arrain egalaria. Juriola.
ERREKA ARRAINA.— Ibaietan ibilten dana.
ESKU-ARRAINA.— Eskua zauri barik anditzen danean.
EURI ARRAINA.— Galiziatik etorten ztran txorrotzalliei deitzen eutsen, eurak agertuaz batera euria ekarten ebela-ta.
KANU ARRAINA.— Kañu eta ur zikin egaletan ibilten dan arraiña.
KATU ARRAINA.— Momatxak, mielgak, kazoiak.
KAZAKO ARRAINA.— Geldi egon barik, ibiliaz arrantzaten dan arraiña.
ITARGI ARRAINA.— Erderaz Pez Luna. Mola.
MAILLU ARRAINA.— Mailu antzeko burua daukana.
MAKALLAU ARRAINA.— Makallau saillekoak. Abario eta abar.

MERIKA ARRAINA.— (Azkue'k diño Lekeitio'n arrain zuri txiki bateri, marra baltzdunari deitzen dautsela. Beste batzun esanetan, "mediku arraiña" da, eta ez merika arraiña.

MEDIKU ARRAINA.— Osagilleak agintzen dakien arrain zuri edo giartsua.

MII ARRAINA.— "Lenguadua".

NESKA ARRAINA.— "Sirena".

OLATU ARRAINA.— Olatu artean arrantzaten dan arraiña.

ONDAR ARRAINA.— Trakino.

ONDAR AZPIKO ARRAINA.— Trakinoren antzeko baiña txikiagoa.

ONDLIKO ARRAINA.— Itxas-beetan ibiltan dana.

ORRATZ ARRAINA.— Lantzoia.

OTA ARRAINTXOA.— Langustinoa.

OTA ARRAIÑA.— Langusta.

SARDA ARRAIÑA.— Moltsoetan, sardetan ibiltan dan arraiña.

SARE ARRAIÑA.— Sareetan artzen dana.

SARDOI ARRAIÑA.— Arrain gaizto, andi eta usna andikoa.

TITI ARRAIÑA.— Emakumeak, burlar-emon aldian, bularrak gogortu eta anditzen jakoezanean, titi-arraiña batu dabela esaten dakie.

TREIN-ARRAIÑA.— Treiñagaz arrantzalen dan arraiña.

TRESMALL-ARRAIÑA.— Aitz ondo eta itxas ertzean iru-malladun sareekin arrantzalen dan arraiña.

TREZTA ARRAIÑA.— Besigu, txitxarro, lebatz eta antzerako arraiñak, tretza edo palangrez artzen diranak.

TXIBIKORAIN ARRAIÑA.— Txibikoraiñekaz arrantzaten dana.

TXORI ARRAIÑA.— Egalaria Juriola.

UR ANDIKO ARRAIÑA.— Ur andietan arrantzaten dana.

UR MEKO ARRAIÑA.— Ur sakoneko arraiña.

LIR GESAKO ARRAIÑA.— Ibai, erreketako arraiña.

UR TXIKIKO ARRAIÑA.— Sakonetan barik, ur azalagoetan ibiltan dana.

URRE-ARRAIÑA.— Urraburua.

ZURDA ARRAIÑA— Balio ez daben arraiña. Geienbat erabilten da, sal-mentan diru gitxi balioten daben arraiña.

TXIS-ARRAIÑA.— Moma, kolaxo eta abarrei deitzen dautse.

ARRAIÑIK ONENA?.— Arrantzateko geratu dana dala esaten da.

ARRAIN IZENETATIK SORTZEN DIRAN ESAERA, IRIZPIDE ETA EZAUGARRIAK.

ANGIRA.— Zirintasan ezaugarria.

Aingira baltza baiño ziríñago...

ANTXOA.— Antxoa umeen tutuaren ezaugarri lez erabilten da. Bai eta mutil ezaugarri be. Eta euriagaz be joskeratzen da. Eta loreagaz.

Aña: Ume baten jaiotza itxaroten danean, jaio dala jakin ondoren, onelako itaunen bat egiten da: Zer izan da? - Mutilla ba da, erantzuna antzerakoa izaten da: Antxoa kumia. Antxoa txikia.

Bestera, euri zirin eta bigunari, antxoa denporan, antxoa bitsa edo ta antxoa adurra deitzen dautse.

Maiatzean, lorarik ederrena antxoa dala esaten da itxas errietan.

BESIGUA.— Nortasuna erakusten da besigu deitureagaz. Duintasuna. "Ori da besigua, ori!" Edo ta "Besigu txarra ez da ori".

BERDELA.— Gizonen txis bidea agertzeko. Berdela beti zorrotz orrek! (Gizon andre zale baiña aragikeriz ibiltzen dana)

BETANDI — Begi andia. Argia.

Leku batzuetan makarel deitzen dautse arrain oneri. Bestetan **BETANDI**. Galiziarrek, ordez, "caballa" saillean sartu nai izan dabe eta Laterrian eurak dauken geienkoenez, alaxe beartu euskaldunak bere deituratzat. Baiña euskaldunak diño berdela baiño askoz geiago ordaintzen dabela eta beste mota bat dala. Erderaz daukan beste izen bategaz

plazaratu ezkeru, erosleak txorien bat ete dan zalantzan geratzen dira: estornino.

DURDOA.— Despreziotzat erabilten dan izena. Uka-pena erakusteko. Zeure durduak! esaten da. Beste era baten, zeure espanak! esaera erabilten dan lez.

ESPARROIA. AKULA.— Gauza zorrotzagaitik edo fiñagaitik esaten da: Esparroiak baiño agin zorrotzago.

IZURDE.— Izurdea izaberea da, erderazko tollino. Anditasun ezaugarri lez erabilten da, baiña ez anditasun jator, anditasun nastetsu edo eskutuko lez baiño. "An dagoz izurdak, ingurura begira. Zer nai nai ete dabe orain ere areik?

"Izurderik jakintsuena, gizona" esaten da.

KAIELA.— Argitasun, begi zorrotz eta ikusmen bizi-koa adierazten dabe. Kaielak baiño begi luzeago. Kaiela, erderaz taulón, urrunetik gauza ikusi, igarri edo ta usaiña artzen dauan arraiña da.

KARRAMARROAK.— Astuntasuna, alperkeria, edo nagikeria lakoa adierazten dabe. Eskolan ezer ikasten ez daben mutillagaitik, edo ta bere zeregiñean aurrerapenik ez dauanagaitik esaten da: Karramarruak lez atzeraka beti.

KOLAIXOA.— Argaltasuna adierazten da. Luze ta argal. Kolaxo sikua baiño argalago, esaten da.

LANTZOIA.— Ganorabakoa, tentela. Ikasten eta ikusten konturatzen makala. Esaera: Ori zer dan be ez dakizu, lantzoï orrek? Bai eta, Lantzoï andia da ori.

LEBATZA.— Aberastasun eta ontasun ezaugarria. Andikia. "Aberatsa, inpemuko lebatza" da esaera. Osotasun baten: Pobria zeruko loria, aberatsa, inpemuko lebatza.

MARRAIXUA.— Itxas otsoa dala esaten da. Biotz bakoa. Edozetara be bereagaz urteten ale-ginduko dana.

MIELGA — Ziztrin, mazkal, aul.

OLAGARRUA.— Amarratza. Berekoa.

PANTXOA.— Erraz jausten dana. Erraz arrapatzen dana. "Kaladan kaladan pantxo bi."

TOLLA.— Gogor, sufridua. Bizitzako goraberetan "kristonak emon edo kristonak artu" esaten dan lez, arrantzaleak "tollanak emon, edo tollanak artu", esaten dakie. tolla, ontziratzean, jo egin bear izaten da ilteko, bein baiño geiagotan jo be, eta origaitik esaera.

TRAMANA.— Zabal, nasai, narraza.

ZIMARROIA.— Lodikotea. Ondo jana. Ondo bizi naikoa.

ARRANTZAKO ONTZIAK

Oituraz arrantzan ezagutu diran ontziak, izen oneikaz bereiztu geinkez:

PLATAK

TXANELAK

BATELAK

TREÑERUAK

ZAGAKUAK

MEÑAGAK

POTIN ANDIAK

BOLINTXERUAK

BAPORAK

MOTORRAK

BELADUNAK

ARRASTERUAK.

Zeaztu daigun, gain gaiñetik, bakoitzaren bereiztasuna eta geien bat bakoitzaren zeregiña.

PLATAK.

Itxasoan, arrantza egunetan, mazia zabaltzeko erabilten ziran txalopa zapalak.

Ontzi traketzak.

Iru-lau ol zabal azpirako, eta barrutik, saietz antzera, ainbat listoi, eurei eusteko.

Atze ta azpia zapal. Aurrea zorrotz, Karel eta gilla barik. Erdian tosta bat, ezker eskuma bere parean toletak daukazala. 1930 urte

inguruan, Ondarroako kaian ezagutzen zan ontzirik txikiena zan.

Orduko motorrak, bolintxean ibiltzen ziranak, arrantza bolintxagaz egiten ebenak, danak euken bakoitzak plata bat.

Arain kalara eldu eta tiña bat mazigaz batera bertan sartzen zan arrantzale bat, mazia zabaldu eta jaurtiteko egokiena zana. Orrela zerbitzu ori egiteko, egokientzat egoan.

Gaur ia ikusi be ez <Ja egiten, eta ikusten diran: banakak mollatik c.izira edo ontzitik mollara bertako arrantzaliak erabiltzen ikusten dira, baiña ez dira itxasora eroaten.


TXANELA. (BATEL TXIKIA)

"Plata"ren antzerakoa da, a baiño gogorra-goa. Killa ta karel, saietz eta braera ta guztiko.

Tosta bi erdian, atzean zabaltxoago beste bat. Lau tolet, eta atzeko karel erdian, erramua sartzeko utsunea egoki bat. Len balandrak erabilten eben orrelako txanela euren serbitsurako.

Azken gerra ondoren, motor ontziak anditu, sareak luzatu, arrantza giroa geitu, izurdak aldendu, "ardora" sartu ta batez be argizko arrantza agertu ta sonda erabilten asi ziranean, bearrezko egin zan txanel au arrantzarako.

Erderaz "chinchorro" deitzen dautse,



KOÑAK, AGUAREÑAK, POTXERAK

BATELA.

Atze ta aurre egituran bardintsu, atzean lema eroanaz, bere burdiñezko zuío ta ardatzagaz. Iru tosta, atzeko txopa ta bruzola aurrean.

Espalda amaieran, gilla gaiñean, egur gogor bategaz egiñiko utsune bat, bietza deitura-koa, bruzoletik etorren belaren agea sartze-ko. Zazpi tolet eta barenga utsunak, panel eta ol zabal batzukin estalduta, errezago ibilteko.

Onelako batelak gaur motorragaz ibilten dira. Berdel, kabra, txibi eta tresmalletan ibilteko egokiak.

Neurri biko batelak ezagutzen dira. Sare batelak, ogei ta bost oiñekuak eta txibi bateiak, ogei edo amazortzi oiñekoak.

TREIÑERUAK.

Batelaren itxurako, baiña luzeago. Iru-lau metro luzeago. Gaur estropadetan bakarrik ibilten dira

Lengo denporetan, arin eta azala zalako, antxoatako egokientzat berau erabilten zan, bai eta neguan bolintxean ibilteko be.

Barruan ibilten diran arrantzaleak, bakoitzak oiturazko dauan jarrilekuaren izena erabilten dabe.

Ikusi izen oneik *tostak* gaia erabilten dogun tokian.

ZAGAKO.

Izenak berak agertzen dau zer ziran. Baporak atzean atoian eroaten eben ontzi zazkar bat. Goi tapau edo "kubiarta" duna Besigu denporan erabilten zituen, tretzak eroateko.

Treiñeruak baiño ia iru metro laburrago ziran luzeran.

MEÑAGA.

Luzeran treiñeruak baiño luzeago. Gogortxuago be bai. Treiñeruak ibili ezin ziran arrantzetarako erabilten ziran, batez be neguan. Ardoreko arrantzan bera zan nagusi.

Aurreko bruzolaz gaiñera ba eukan erdian beste utsune bat bela-agak zutik ipinteko.

TXALOPA ANDIAK.

Edo ta potin andiak. Bardin da.

Neguan be erabilliarren, atun denporan eukan bere zeregiñik bereziena.

Berrogei ta amarretik irurogei oin luze. Amar amabi zabal.

Goi tapau edo kubiartadunak.

Amabi tosta, abor-estiborreko toletekin..

Amar-amaika arrantzale erramutan eten barik ibili bear aize bako egunetan.

Maste edo aga andi bi eukezan belak zabaltzeko, andia erdian eta txikiagoa aurrean.

Aizea zelako, alako belak erabilten zituen.

Aize gitxigaz, erdian bela nagusia ta aurrean triketa.

Mendebal berdetan, nagusiaren ordeztartaiña (bela) erdian eta aurrean trokua. Tarteko egualdietan burriketa.

Gaur be, bajurako motorrak, batez be eguraldi txarretan, trokua erabilten dabe daurrean eta latiña atzean.

Aize gogorretan burriketa ta artaiña erabilten zituen, eta eguraldi txarretan edo denporaletan, burriketa eta trokua

Batzutan, batez be triketari buruz, belarik aldatu barik, triketa bera iru laurden moztuten zan edo erdira ekarriaz josturatik bertatik sokakin lotu.

Txalopa andiaren gidaritzarako, patroiak gauza bi eukazan: erramu andi bat eta lemanakia.

Lemia bera iru lau burdin pletinekaz gogortutako egur zabal andi bat zan, goian burdiñezko zulo andi bat eta beian ardatz bat zituala, txalopa andiak berak atzian eukazan ardatz zuloetan sartzeko.

Nai ta ariñak izan, berez azalak eta arruak ziran lez, itxaso zabaletan ibilteko ez ziran egokiak.

Origaitik ondarrez betetako sakoak erabilten zituen barruan, olatuei obeto erantzuteko.

Ala ta guzti, bai negu eta bai udan, estutasun ugari igaroten zituen bertakoak.

Orreitariko asko Bilboko portura saldu ziran an gabarratzat erabilteko.

1926 urtean amaitu ziran.

Euren gogorapena, esaeretan geratu da mariñelen artean, batez be egualdiaren deituetan, euren belak erabilteak iragarten eban belaeen izenetak.

Ala, troku beteko eguraldia esaten da, aize gogorra esan bearrean.

Artaiño erdikoa, ain gogorra ez ba da.

Eta orrelaxe.

Atunetara joaten ziranetan, erria utsik gertzen zan, ia andra ta umeak bakarrik gertzen ziralako, eta erriko umeak egunero kantaten ibiltzen ziran: Txalopa andixe, trixe, aitag dakar bizar andixe."

Baporak indarra artzean, amaitu zan euren aldia.

Neguetan, zer egiñik ez eukenetan, orain portu barria eginda dagon tokian, orduan ondartzan, lotuten ziran udararte.

Potin andiei, beste era baten, kala-potiñak deitzen eutsen.

BOLINTXERUAK.

Ontzi mota au mesedegarri sartu zan portuetan.

Ordurarteko treiñeruak bastertu zitun. Ez ziran treiñemak baiño askoz luzeago, zabalera zerbait geiago. Nai eta urte guztian, manjuban, saretan edo lantzoitan ibili batez be sardiñetarako eta txitxarroarako ziran egokienak. Lenengotan goi bakoak agertu ziran, kubiarta bakoak, baiña arrantza toki barrietara zabaltzen asi ziranean, eta batez be gero ta andiago egiten zituenetik, laster agertu ziran goi tapauak, kubiartadunak, arrantzalien barruko bizibideari egokitasun

pixkat ekarriaz. 197 inguruan amaitu zan azkena.

Bolintxeruen atzetik orain motor txikiak deitzen diranak agertu ziran. Motor txiki oneik txibitan, berdeletan, kabratan, palankatan eta muxarratan edo ta tresmalletako arrantzan ibiltzen dira.

MOTOR AUNDIXAK.

193 urtean agertu zan arrantza bizitza zearo aldatuko eban ontzi bat. "Bolinders" eban izena, au da makiña egin zan lantegiko izena.

Andik urte bira amaitu eben Ondarroako astilleroan Markue izeneko ontzi bat, orduarte lez bapore indarragaz ibiltekoen ordez, motorraren indarrez ibiltekoa.

Lenengotan arrantzale askok ez eben ontzat emon.

aitzakirik andiena motorraren zarata zan: arraiña uxatu egingo ebala. Alaz eta lenengo motor orrek, lenengo atuntsuan, nai ta gorengo izan ez, bapore askoren maillara eldu zan irabazietan. 5 HP dun motorra zan Aren atzetik datoz besteak, zaraten bildur barik, gaur 60 HP dunak eta abar. Garbitasuna, egokitasuna, bizitza erosoagoa gizonen aldetik, bere mesedeak dira. Gero ibillera luzeagoak egiteko erreztasuna, arrain bizia eukiteko toki, izotz leku eta abar.

ARRASTERUAK.

Erabide onetan dabiltz gaur itxas ontzirik aurreratuenak. Deko, sonda elektrikoa, radar, gonio, itxas orratza, lantia, giño argi eta itzasorako agertzen diran teknikarik aurreratuenentan. 150 HP indarrez, eta beste 80 HP dun laguntzaille. Baiña gai au gure antxiñako arrantzatik kanpora dua.

ITZ JOKO LABUR BATZUK.

ALLOSTU DIRA.

Allos egin, bardindu.

AMARI EZ EMON.

Arrantzaleak euren diru partilletan alboratzen dituen zatietako bat. Ardautarako edo gizonak euren gastuetarako geratzen diran dirua izaten da.

Ba dauka beste deitura bat be: *ARDAU DIRUA*. au da, ardautarako gordeten dana.

Ez da beti dirutza bardiña izaten. Astean zelako irabazia egon, ze ikusia dauka, geixuago edo gitxitxoago izateko.

Erri bakoitzean deitura berezia emoten dau-tse orrelako irabaziari, eta gizon banakak izaten dira dirutza ori etxean lagaten dabenak.

AMURE EGON.

Kezkati egon. Arduratsu.

AMURE EMON.

Lokarriak arindu, nasaitu.

Edo asitako zeregin bat itxi.

ANDRAKILLETA LAKOXIA.—

Andrakilleta, -muñeca. Beraz aren antzekoa.

ARI MEIA.


Ozta-ozta bizi dana. Erdi gaixoa. Bestetan, gizon estua

ARROSINKA ARROSINKA LOAK ARTU.

Aoa zabaldu ta zabaldu, igarri barik loak artu.

ARTALAKATZA IPINI.

Kortxoa ipintea lez. Artalakatza, edo arto lokotza, artoari garauak kendu ondoren geratzen dan zatia da. Mazorrea. Edari bigunentzako kortxotzat erabilten eben baserrietan.



MARINEL-ORAPILLO

APO-APUN.

Nekez bizi, ozta-ozta.

ATAKO BANDA.

Itxasoan kanporako bidea artu. At'ako banda.

AT2EKO OTSUA.-

Patroi gaiztua ontzian.

ANDRAK ELIXARA,

PIO PIOLIN, MATEO TXANBOLIN,

APARIXUA ERRIA TA TXIBIKORAINAKIN.

Umetako kantua.



BA LITZ ETA BA ZAN, BIAK ALKARREN KAZAN.

Esaera

BAKARRA PENIAGAZ EZKONTZEN DA.

Alargunen esaera

BAKOITZAK BEREARI TEN.

Esaera

BAKOITZAK BERE OPILLARI IKATZA.

**BARIXAKUKO TRUMOIAK BEDERATZI URRENEKO
KANPAIAK.**

Trumoia barikuz joten asten ba da, bedera-
tziurrena ekarriko dabela esan nairik.

BARRIARI GAINEZKAKO OLATUTAN.

Moskor andia kalean ikustean, albo batetik
besterako jauskeretan.

**BASERRITARRA, TIRRI TARRA, IO POPAN DA
ERREKARA.**

**BAT, BI, IRU, LAU, TXAKURRAK BUZTANA ALTZA
DAU.**

Umetako jokoetan.

**BAT, JUAN TARRAT. BI, MATXIN IPURDI. BOST
KAKAK PROST.**

Umetako jokoetan.

**BAT, MARTIN BARRABAS. BI MARTIN IPURDI.
BOST, ANKAMOTZ.**

Umetako jokoetan.

**BATEK NAI EZ BA DAU; BI EZ DIRA EZKONTZEN.
BATELA TA TXANELA BEREIZTEN EZ DAKIANA, EZ
DA MARINELA.**

**BEGIAK IKUSTEN EZ DABENA DON JUAN BA ZAN
BE, JUAN ZAN.**

BELAK.

Txalopetan erabilten diran aize oialak izaten
dira.

Sei eratakoak izaten ziran, eta euren izen bereziak eukiten zituen.

BELAEN IZENAK:

**NAGUSIA
TRINKETA
ARTAINA
BURRIKETA
BURRIKETA TXIKIA
ARTZAINA.**

BELAK lau parte eukiten zituen:

**Bekoa: BRAGERA.
Goikoa: ENBARGERA.
Aurre-aldea: ARLINGA.
Atze aldea: ESKOTERA.**

**BELA BELA MUNDU GUSTITIK, OTZARI OSTU
DABE LEON PEPENETIK, EZTABE OSTU BANA
GORDERIK GARBI DAGO, MARI MUTRIKUARRA
BEGIRA DAGO. ORTUAN PEREJILLA, SALERUAN
GATZA, ATARA PLATERERA JAN DAIGUN LEBATZA**

Umetako kantua.

BERDELA.

Arrain izena. Caballa, verdel. Scomber Scombrus.

Batzutan gizonaren txis bidetzat erabilten da deitura ori.


BERDELA AGIRIAN DABILLAN GIZONAK, EZ DAUKA LOTSARIK.

BERDELA ERAKUSTEN DABILLAN GIZONAK, EZ DAUKA ANDRARIK.

BERE BURUARI DON ESATEN DAUTSANAK, EZ DAUKA BURUA ON.

BESIGU TXARRA EZ DA ORII!

Gizon andia dala esan nairik.



BETI MARIA GUREA GORUETAN, BIAR EZ DAN ORDUETAN.

BETI JAN DA JATEKO, GOSEZTO.

BITARTETIK ANTIGUARA ZENBAT MISTERIO?

MISTERIO BAT ETA AMAR ABE MARI.

Ondarroako andrak erreztazaille on izan dira beti. Ba eukezan errosariorako mugak, Antigua'ra joatean. BITARTE Antigua baiño len-txuago dagon kapillatxoa da. Orra neurria.

BIZARRAK EZ DAU GIZONIK EGITEN.

BIZITZAK EGUN BATEN EGIXE, URRENGUAN GUZUR ANDIXE.

BIZIXUAK.

Esteetako ar, xixariei, Ondarroan bizixuak deitzen dautse.

Ortik esaera batzuk:

UME PONGILIÑO ONEK BIZIXUAK BAIÑO EZ DAUKAZ.

BIZIXO PAPERETAKO LAIN BE SEKULA EZ DAU EGINGO MIRRIN ONEK.

BOST, SEI, ZAZPI ZORTZI, KATUAK ESPANAK IGORTZI.

BOST, KOSKAN KOSK.

BOTA-BOTAKA TXIBIXEI JATEN EMOTEN DABIL.

Itxasora joan eta mariatuta barrukoak kanpotzen dabillanagaitik esaten da.

Beste era baten, bota-botaka ibiltea, dirua neurri barik eralgiten ibiltea da. Orrelakoen-tzat beste esaera au:

BOTA-BOTAKA DABILLANA, AZKENEAN OSPITALAK JASO BEAR.

BESIGUA.

Bixugu, besigu. Pagellus centrodontus.

Arremea da, au da, hermafrodita esaten dana.

Len neguan arrantzalen zan. Ortik esaerak: Santa Katalina noiz da? Besigutarako goiz da. (Santa Katalina Azilla'ren 25'an izaten da)

Geroago ugaritzen zalako edo dator beste esaera: San Txilibristo, besigua aotik dindilizka. (31 Gabonilla). Eta beste bat, San Anton,

besiguak al monton. (San Anton, Urtarri-
lla'ren 19'an).

Orain urte guztian artzen da, eta Dagonillan
egoten dala koipetsuen esaten da. Urte guz-
tian arrantzate au, arrasterako erabidea urte
guztiko arrantza dalako da.

BESIGUTARAKO KALAK.

Inguru onetan, besigutarako kalak, oneik
ziran:

ALDROXKA,
AMEINA,
ARNO ATZIA
ARRITXU
BALTZOLA ATZIA
GARRO
IXKOTE
LAKRAIXTE
PLAIATSU
SATURRAN
TANTORTAK.

BESIGUTARAKO BERBAK:

Besigu denporan, bertako arrantzari buruz
lengo arrantzaleak erabilten zituen:

AMUA JO.
AMUSKIXE
ARRIPENDULA.
BESIGUTARAKO AMUA.
BESIGUTARAKO OTZARA.
DEIXE.
ENBARGA.
ENKARNATEA.
ESKUN PASATEA.
ENTOLLA.
FAROLERUAK.
KALAK.
KARNATA.
KARNATA EGIN
KARNATA EMON
KOTAK KENDU.
KORREDORA.
LIÑABI.
MARKAK

MAZI-BARRILLAK
MUNDILLAK
MUNDILLETAKO SOKAK
ORDUKO TURRUNE
POTXERA
SEÑERUK.
SONDA BURDIÑA.
TIRANTAK,
TIRANTA OTZARA
TREETZARA
TRETZA
TRETZAK JO.
TSITSAISTE
(BESIGUTARAKO BERBAK)
UBARRI
URKULA
ZUBILLA

BESIGU ARRANTZARAKO ARRANTZALE BAKOITZAK EROAN BEAR IZAN ZITUANAK.

Gízon bakoitzak.

Amar TRETZA eroan bear izaten zitun. TERTZA edo TRETZA deitzen joko besigutarako aparixuari. Bost tretza *enkarnata* eroan bear izaten ziran, au da karnata amuetan ipinita, eta beste bost geroago erabilteko.

MUNDILLAK, biña, berreun braza, bakoitzak eta bakoitzaren otzara.

ATABAKA ta KUTXILLOA, bost URKULA, TREETZARA BI eta Ardaua.

Azalpen batzuk:

TRETZA bakoitzak kordel nausi bat eukiten dau, kordel-ama, luzeran irurogei bezotekoa: subilla, Kordel onetatik, 5 zentimetrotik 5 zentimetrora beste soka bat "POTXERIA" deitzen dana lotuta joaten da, 2 zentimetro luzera ingurukoa, eta onen puntan amua, besigutarako egokia. Au uretan sartzen da, eta orretarako lagungarriak daukaz: TIRANTAK, tengadaka eutsi eragiteko sokak, MUNDILLAK, buixak, tuntuixak, ARRI PENDULAK, berako tengadetan eutsi eragiteko, eta TXI-

BEUDENA ZAN JOKOA.

Eurena zala jokoa adierazteko.

BIBIKA IBILI.

Intxaur jokoan ibili.

BUITU BUITU (BUTXU BUTXU) EGINDA URETATIK ATARA.

Urez beteta norbait uretarik ataraten danean.

Esanbide laburrak

BALDARRAZ JOTEN BALDARRA ZAN.

Mailluagaz joten traketza zala esateko.

BALDIZTU GAZTAINAK.

Gaztañei azala kendu.

BAPEZ TA EZEBEZ.

Zearo uts.

BARBARIKOTIK EZ BALKOIAN.

Barbarikota, jantziak garbitu ondoren, aizetan sikatzera atarateko eskegigarria.

BARREN BARRA OLATUAK.

Olatu andiak. Barra jo ta gaiñez egiten dau-tzenak.

BASAPERA BOTA.

Gauza bat aitzat artu ez, jaramonik egin ez.

BEGITXINDORREZ BETETA.

Begiak bekarrez beteta, ezin zabalduta, erre-ta, miñetan.

BELAUNGOZOKO AGUREA.

Urteak-urte eukiarren, ibilteko aitzakirik ez daukana.

BOA TA ZIXE.

Batel baten erramutan (arraunean). Noz nai aurreraka, ta bestetan atzeraka.

BOSATEKO BATZA LAKORIK EZ TXORIENTZAT.

Txoriak beratu ta geratzeko, batza, sagar patsa, maite izaten dabelako.



ARRUNTA

DABILLENAK BETI DAKAR ZERBAIT.

Dabillenak beti lortzen dauala zerbeit, esan nairik.

DABILLEN DABILLEN PEDRO ELDUKO DA LEMAKANIA ARTZEN.

Alegintsua dalako, patroizatera be elduko dala esateko.

DAMURIK EZ, PARKAMENIK BE EZ.

Damutu ezik, ez dagola parkatzerik.

DAR DAR BURUAGAZ, GEIAGO EZ DA ESATEN BERBA GARRATZEKAZ.

Askotan berbakin baiño errezago adierazten dala esan gurea.

DEBA ESKUTARI, MUTRIKU DANTZARI, ONDARRU ZAPI-ZAR, LEKEITIO MADRIL-ZAR.

Erri bakoitzan ikuspegia adierazten datorren esaera txorta bateko zatia.

DEPEN.

Batel batetik bestera egiten dan deia alkar ez joteko.

DINDILIZKAKO UMIA.

Ume mirriña, sendotu ezin dana.

DIRUAREN IZPIA.

Gizon zekenagaitik esaten da.

DIRUAREN NARRUA OTSO ARENA BAINO SIKUAGOA DA.

DOMURU SANTURUTAN ARIMA PIELAK KANDELA ARGITAN.

Domuru Santuru eguna, santu guztien eguna izaten da, Azilla'ren l'an. Eta oiturazko da kanposantuetarako ikustaldia, bertan argiak biztuaz.

DONGILLAK.

Pelota txikiak.

DONGILLAK. AMAN DONGILLAK.

Destaiñezko esaera da. Amandongillak, erderazko albondiguillak dira.

DRA.

Gauza edo zerbait igarri dala adierazten da berba onegaz. Azkue'k bere Iztegian *diraren* laburpena dala diño. Baiña Ondarroan beste ezaugarri ori emoten jako.

Zein dala ta zein dala... Mendian asi, errira etorri ta bera nausi?

—Alkate makilla.

—DRA! Esatea lez, alaxe da, edo egia da. edo ta Bai!

DIN DAN BOLERAN, BOLERANGO ELIZAN, ZAZPI GIZON DANTZAN, ZU MOSKORRA, NI MOSKORRA, NAI DABENAK KANPORA.

Umetako kantua.

DONOSTIARRAK ASI DIRA BABA! URRUNAK JATEN DATORREN URTERAKO INDARRAK GERTUTEN.

Ondarrutarrak bertsoetan kantaten dakiena, donostiarren zirikadan, estropadetan euki izan dituen alkarrentzako destañei erantzunez.

DRAGIAK BAINO GOSE GEIAGO.

Dragia kaia garbitzen eta bertako ondarrak eta basak kentzen ibiltan dan itxasontzi berezia da. Beti batzen dabillan lez, gosetia dala esaten da. Ortik esaera.

DRAMIOKA IBILI.

Norbait oratu, arrapatzen ibiltea, ume jokoe-tan.

DSANGA DSANGA URA EDANDA OBETO IBILTEN DA

ARDAUA BOTILLATIK EDANDA BAINO.

Dsanga-dsanga edan, geratu barik, aoak irunsi ala esatea.

DSASTADA EGIN EDO EMON.

Inyezioa emotean esaten da.

DSAST BERAK, BAITA NIK ZAST.

Berak jo ni, nik bardin bera.

DSINGALEKU TA GUZTIKO JAKEA NAI IZATEN EBAN.

Pertsona arroagaitik esaten da. Modan ibili nairik dabillanagaitik. Dsingaleku txamararren atzeko etenari deitzen jako.

DSINGAN ABILLA DANA, EZ DA ERRAMLILARI MAKALA.

Dsingan erramutan egitea, batel baten atzeko toletean sartutako erramu bakarragaz erramutan egitea da, esker-eskuma ibiliaz.

DSAPART EGIN.

Arrapatu. Oratu.

DSAPART EGIN EUTSEN LAPURRETAN EBILLALA. DABILLANAGAZ DABIL.

Dakianagaz dabillala esateko. Kezka kentzeko.

DARDARAKO GOZUA.

Dardarakua, flan'ari esaten dautse.

DEMONTRE DIAMOTXUA.

Gure zarren "maldeziñotako" bat.

DEBALDE, MUTRIKUTIK ARUNTZ.

Zerbait doan emotea nai izaten danean erantzuten da.

DIN DAN, DIN DIN DIN DIN DAN, DINDAN, DINDAN.....


Burukomiñak kentzeko, Antigua'ko kanpaien artean burua sartu eta goi ta beko otsdun kanpaia jotzen erabilteko era.

DONIANETAN GABA BE EGUN.



Donianetan egun luzea egoten dalako.

DONIANETAN, SAN JUNAK.

Donianeak, san Juanak birresaten.



BIURRAK, KOTIAK



EBIZEN EBIZEN, LORTU EBEN.

Ekiña bearrezko dala adierazteko.

**EDOZEIN DA ARRANTZALE ARRAINA GOSERIK
DABILLANEAN.**

Patroi batzuen arrokeria kentzeko.

EGIAK MIN, ATZO ETA GAUR, BIAR ETA ETZI.

Egia beti egi izan bear dala agertzeko.

EGI BAKARRA, GURE JAINKO.

EGUZKIA NORA KERIZA BERE ONDORA.

Eguzkia dagon tokian kerizpea sortzen dala-
ko.

EGUZKIA ONA DA, BAINA BA DAKI JOTEN.

Eguzkitan kontuz ibili bear dalako.

EGUZKIAK JOTAKOAN ARRAINIK ONENA BE MINA.

"Pasatako" arraiñik ez jatea adierazteko.

ELANTXOBE, MILLA POBRE.

Esaera zarra.

EMAKLIMEA ETA ARRAIÑA AOTIK GALTZEN DIRA.

Ao zabal ibilten diralako.

EMAKUMEA ETA ARRAIÑA, SARE BATEKO.

**EMAZTEA ETA SENARRA ERRIETAN, EGUNA ARGITU
ORDUKO ERREKAIZETAN.**

Senar emazteen arteko asarreak aizeak
daroazalako.

**EMEN DATOR BAPORA IRU PALOKUA, JUAN DA
BISITAZERA KARABINERUA.**

Umetako kanta, oitura ori gogoratzen.

**EMEN NAGOKA ARRAIÑA DABILLANEAN, ANDREA-
GAZ EGONDA PARTILLARIK EZ ETXEAN.**

Etxean egonda irabazirik ez dala lortzen.

EMON DA KENDU ZAPATIA KENDU.

Umetako esaera.

EMON DA KENDU, ZAPATIA GALDU.

Umetako esaera.

ENERO FEBRERO MARZO ABRIL, TXIRIKINEN
KAPELIA DANTZAN DABIL.

Umetako jolasa.

ERREKA AIZEA, ANDREN AIZEA.

ERASTUNA ATZAMARREAN, KATEA KONTZIEN-
TZIAN.

Erastunak, eskontza ezaugarrirez, dakarren
lotueragaitik.

ERRAZ DATORRENA, ERRAZ JOATEN DA.

Erraz irabazten dana, erraz gastaten dalako.

ERREMENTARIEN ETXEAN ZOTZA BURDUNTZI.

Ardurarik geien euki bear dana faltaten dala-
ko.

ERRIA TXIKOTA, ETEN BARIK.

Gauzak nasai artu edo erabili bear dirala.

ERRUAK ZABALDU, LUZATU.

Bakoitzak bere nortasuna zabaldu bearra.

Erruak, txibi edo txipiroien erroak.

Hondarribian garroak deitzen dautse.

ESATEKOAK ESAN, SAN PEDRO'RI BE NASAI
ESAN.

Esan bearrekoa, edozeiñen aurrean lotsa
barik agertu bear dala.

ESATEKOAK GORREI BE ENTZUTEKO -MODUAN
ESAN.

Esan bearrekoak argi esan bear diralako.

ESKAMARIK EZ EKARRI.

Eskama, batzutan eskata, eskarda = mauts.
(Kopletan ez etorri, esatea lez.

ESKOBA KIRTENAK INDARRIK BA DAU, GARBITU-
KO ZAITUT!

ESKOLATIK IGESI, GAUR ORTOZIK, URRENGOAN
GOSIK (GOSERIK)

Ikasi bearra adierazteko edo ez ikastearen
kalteak agertzeko.

ESAN ASKO ETA EGIN GITXI, GOSEZ IL EI ZAN
AUZOKO PATXI.

Kantuak barik, lanak bizi eragiten dauala
adierazteko.

ESKERRIK ASKO, MARIA OLLASKO, LEKEITIOKO
ATSOAK BIZARRA ASKO.

(Esaera zarra)

ESKERRIK ASKO MARIA OLLASKO, OKELA GITXITA SALDA ASKO.

(Lengoaren antzeko esaera zarra)

ESNE TELAK JATEA DA NIRE PEKATU.

—PEKATUTZAT ARTZEN BA DOZU, AMARI KONFESATU.

Edozer ez dala pekatu adierazi nairik.

ESPIXE SARTZEKO PREST.

Min emoteko gertu dagonagaitik esaten da.

ESPARLOIAK BAIÑO AGIN ZORROTZAGO.

Edozer jateko gertu dagonagaitik.

EURIARI LAGA JAUSTEN ETA AIZEARI IBILTEN.

Egualdiaren aurka zeregiñik ez dagolako.

EURIXE, MARKIÑAN EURIXE.

Umetako kantua. Euri tantak asi orduko; markiña aldetik euria etorrelako.

EURI ARRAINA.

Galiziar txorrotxailiei deitzen eutsen. Galizitak euria agertzen dalako sarri ta eurak ikustean orren gogorapena sortzen zalako.

EURI LANTXE.

Sirimiri lako euria.

EZER EZ DAGON LEKUAN, ATZAMARRA GARBI.

Ezer ez dagon tokian zirikaldirik be ez dagolako.

EZER EZ DAGON TOKIAN KONTZIENTZIA GARBI.

Lengoaren antzeko esan naia.

EZPANAK.

Ezpanak gaitzat artuta, era askotara agertzen dira. Ara batzuk:

Baltzituta

Edanaren adierazgarri.

Audituta

Bear ba da alkar jotzen.

Bitsetan

Arrokeriz.

Erreta

Janarien bategaz.

Etenda

Otzak ikututa.

Koipetan

Jan barri.

Labanduta

Jateko gertu.

Moretuta

Itxasoan ibiliaz.

Okertuta

Asarre

Ospelduta.

Ospelak urtenda.

Orítuta

Gaixo kolorez

Urtuta

Urez pustuta

Zikatuta

Egarri.

Zurituta

Gaixo.

ERRE TA ERRE POPI ERRE.

Umetako jokoá.

EUTSI BEUTSE

Eusten. Aguantatzen.

EZPETAK ZABAL IBILI.

Arro arro eskuak zabal ibili. Ezpetak deitzen dira txalopetan, abor estibor zabaltzen diran agak, arrantzan ekiteko.

ESKU ZURDA ONEK EZ DAU BALIO.

Esku zurdaz egiñiko aparixua nai dan arraiñetarako egoki ez danean.

EGUNA ETA EGLINAREN BANAKETA.

Eguna banatzeko berba oneik erabilten dira:

Egun sentixe,

eguna sortzen igarten danean.

Goixaldi

Bostak seirak inguruari.

Goixe

Amabiak inguruarte.

Eguerdi aurri.

Amaikak eta erdi ia amabi ingumari.

Eguerdixe.

Amaibiak, ordubatak... bazkaitako aldiari.

Eguerdi osti

Siesta botateko orduari.

Arratsaldi

Illuntzerarteko orduei.

Arratsalde erdixe

Bostak ingumari.

Illuntzi

Illunabarra.

Illuntzen asten danean.

Gau lena.

Gau aurea.

Gaba


Ilunpeko aldi guztia.

Gaberd/xe

Gabeko amabi-ordubata inguruari.

Gau etena.

Gaba eteten asten dan aldiari.





FAMA ONA EGITE ONEN ONDORENA.
FAMA ONA, LOTARAKO ATSEDENA.
FAMA TXARRA, GAIXORIK TXARRENA
FIRO GERATU TA JOKOA GALDU
FIRILI FARALA, ERREKAIZE ZAZKARRA.





GABIZEN GABIZEN...

Ibilia berea dakarrela esateko.

GABAK ILLUNA BERAGAZ.

GABAZ, KATU GUZTIAK BALTZAK.

Illunaren ondorena.

GALDU ERREZ, BILLATU NEKEZ.

Edozer be arin galdu eta nekez lortzen dala.

GANBARA GALDUTA.

Erdi zoratuta.

GANBARA ZULATUTA.

Erdi zoratuta.

GANGUREN MANGLIREN, ALPERRERIA GUREN.

Aitzakiak aitzaki alperkeria nausi.

GARBI DAGONAK KEZKARIK EZ.

Bizitza garbiaren ontasuna.

GARBI DAGONAK BE JABOIA BEAR:

Beti garbitu bearra adierazteko.

GAROA TA IRA BAT BA DIRA, ZEGAITIK EZ IRE TA GURE?

Itz jokoan jolasa.

GERO, GEROKO GERO.

Beti be, geroa luzatu egiten dala.

GERO, OTZ EZ DANA BERO.

Gero be aitzakiak egoten dirala.

GERRA NAI DABENAK, BAKERIK EZ.

GERRAN IL ZIRANAK BAKERIK LORTU EZ ETA GOSEA EZAGUTU EBEN.

Gerraren kalteak adierazteko.

GERRA ZER DAN EZTAKI, IBILI EZ DANAK.

Gerraren garraztasuna ezagutzeko, ibilli bear dala adieraziz.

GOGORIK EZ ETA EGIN BEAR, EZ DAU DANAK URTENGO URRE ETA ZIDAR.

Gogo txarrez, beartuta egiten dana, ez dala beti on egiten.

**GORRA BE GURE MANU, BAINA EZ EZER EZAN
AREN KONTU.**

Gorrak be laster igarten dabela eurekaitik
esaten dana.

**GOGORRENA ALKATE, ERRIAN EGONGO DA NAI-
KO KATE.**

Gogorra dalako alkatea ipinten danean, zigo-
rra erabiliko dauala.

**GOSE DAGONIK EZ BIALDU ATETIK JAINKOA
ERRUKITUKO DALA ESANDA.**

Beartsuari lagundu egin bear jakola, ez
borondatea bakarrik agertu.

**GU, TA GU TA GU, AZKENEAN GURUGU, MOROAK
IRABAZI ETA GUK GALDU.**

Norberegan lar sinistuta, galtzea be gertatu
daitekela gogoratzeko.

**GURE ANDREA KALEAN, KRIXADEA ETXEAN NAI
DABEN MODUAN.**

Etxean arduradunik ez dagonean, neskamea
bere erara ibiliko dala.

**GURE ANDREA KALEAN? ETXEAN KRIXADEA UGA-
ZABA-ANDRA TA GU IXILIK BEAR.**


Andrea kale zale bada, etxeean neskameak
nai dauana egin eta besteak ixildu bearra
egoten dala.

**GURE DIBURTZI TA BERE GIZONTZAKO, BATA
IÑUZENTI, BESTIA UNBORAKO.**

Etxeko neska ta senargaia, biak koitadu-
iñuzenteak.

**GURE MANASI, KOITADATIK PASATA, AZKENEAN
BE TXILIN TXIUN.**

Ain koitadea zalako, il da gero be iñuzenteen
antzera eroan ebela.



GURMAK EGUKI.

Asarre ibili.

GURMATAN GALDU ZAN GIZONA, ANDREA AIZETAN EBILLAN ARTEAN.

Andrea bere kontura ebillala, gizonak bere burua galdu ebala.

GURMATZAN TXALOPAK TUTUKA, ETXETAN ANDRAK ERREGUKA.

Gizonak itxasoan dabiltzala lañoa agertzen danean, andren kezka adierazi nairik.

GURMAK ITXASOAN, KANDELA BIZTU ARASA GAI-NEAN.

Itxasoko lañoen arriskua adierazteko.

**GETARI'KO SAN ANTON ARRATOIA,
ONDARROA'KO MARI ANTON SAGUA.**

(Ondarroa'n "Sagua"neko asko dagozalako esaten da.

**GEZALA ESATEN DAUTSE GIPUTXAK KRESALARI,
BOKARTA BE BAI ORREIK ANTZOARI.**

(Alkar arteko alderantziak adierazteko.)

GIZONA GIZONA DANAK, PRAKAK ALDIAN.

Gizonak bere nortasuna agertu bear dauala.

GIZONA GIZON DANA, ITXASOAN EZAGUTZEN DA.
Itxasoko arriskueta ezagutzen dala gizontasuna.

**GIZONAK ETXIAN ETA ANDRAK KALIAN, SANTUAK
EZ DABIZ AMENIAN.**

Ori gertaten danean, gauzak oker dabiltzala.

**GIZONAK KLINK ETA ANDRIAK KLONK, ETXE ARETAN
KATUA BE LO KONKOR.**

Edari zale diran senar-emazteen etxean, katuak be zerbait egingo dauala.

**GIZONA OPIL BEDEINKATUA, ANDRIA ABADETXE-
KO KONTULARIA.**

Gizona onegi ba da, andrea an ibiliko dala bere-esan mesanetan.

**GIZONA GIZON IZATEKO, GARUNAK ETA PRAKAK
EUREN TOKIETAN.**

Gizon izateko zentzuz eta garbi jokatu bear dala.

GIZONA ETA SENARRA BI DIRA. SENARRA IZAN
LEI GIZONA TA GIZONA EZ SENARRA.

GIZONA BETI GALTZEKO ANDRAK TARTEAN DIRA-
NEAN.

Andrak gizonari gaiñetik egiten dautselako.

GILTZIK BAKO ATEA, ZAUNKA BAKO TXAKURRA,
JO, SARTU TA AURRERA.

Atean nok zaindu ez dagonean, deitu ta sar-
tzeko.

GOBELA URDULIZ'EN KARE BIZIARI, URDULIZTA-
RRAK BA DAKIE ZER ERAKUTSI ONDARRUTARREI

Urduliztarrak be norbait dirala adierazi nairik.

GUZURRAREN INDARRA, BIZTU ORDUKO IGARRA.

Guzurraren indarra makala dala adierazteko.

GUZUR BAT ESAN NEBAN ASTERRIKAN, NI BAINO
LENAGO ZAN GOROZIKAN.

Guzurra arin zabaltzen dalako.

GUZURTIA ETA ERRENA, BETI ANKAZ GORA.

Guzurtia eta errena sendotasun barik ibiltzen
diralako.

GUZURTIA ETA ERRENA, ERRAZ JAUSI.

Oiñarrria gitxi daukelako.

GARRAGARRAKA DABIL-

Beian etzanda, astoa lez ibili.

GRAK ETA BLAST.

Jo ta bera


GOITARRAK ETA BEITARRAK.

Arantzaliak batzuk eta besteak nungoak
diran ezagutzeko erabilten dabe deitura
bikoitz au.

Beitarrak, geienetan, mendebal aldeko errie-
takuak. Goitarrak bakoitzaren erritik Ondarri-
bi aldera dagozanak.

Ala ondarrutarrentzat goitarrak dira Mutriku,
Zumaia, Getari, Orio, Pasai eta Hondarribi.

Baitarrak Lekeitio'tik asi eta be alderakoak,
itxas ertzean, jakiña.



IBILLEREI BURUZ edo OLGETAN IBILTEKO ERAK

ARRE LEPOKA.

Bestearen lepo gainean jarri ta zein lenago-
ka.

ALBO ALBOKA.

Ezker eskumara ibilten.

AN ZAREAN LAKOAN EMEN.

Uste barik ibilten asi ta zein lenago.

ASTO ASTOKA

Makurtuta jarri ta bata bestearen lepo gaine-
tatik ibilten.

ARRE ARREKA.

Astoezin antzera tengadaka zein lenago.

AURRE-AURREKA

Aurrez-aurreka zein ariñago.

ATZE-ATZEKA

Atze-atzeka zein ariñago.

EZKER-EZKUMA

Ezkerretik eskumara ibiliz zein ariñago.

GORA BERAKA

Gora ta beraka ibiliz, zein ariñago.

KOJOKA. (ERRENKA)

Anka baten gainean zein ariñago.

KORREN KORRENKA

Birak emoten, zein ariñago.

ITSU-ITSUKA

Begiak zapi bategaz estaldu eta zein ariña-
go.

OLATU BARE-BAREKA

Sokan, sokeari bira osoa eragin barik, olatu
imdiak eragiñaz.

MANDO-MANDOKA.

Asto-astoka'ren joko bardintsua.

OKER-OKERKA

Oker-oker eginda, ibiliaz, zein lenago.

POPAXKA

Ipurdia beia joten dala ibiliaz, zein ariñago.

SALTO-SALTOKA

Saltoka ibiliaz.

TTITTIAN POTTIAN.

Ainka puntetan ibiliaz, zein ariñago.

ITZ JOKO ETA ESAERAK.

IKUAK JAN ETA KAKA EGIN.

Ikuak barrua bereala erabilten dabelako esaten zan.

IKUSI MAKUSIKA IKUSTEN ETA IGARTEN.

Joko aJegiña egin bear dala adierazteko.

ILLETA JOTEN KANPAIAK BE MUTU LAGA.

Beti negarti dabillanagaitik esaten da

INGELESIN, ESKOLATIK IGESI.

Ingeles joko deitzen zan, toki lau baten arrai bat egin, eta arrai orretara diruak zein urrerago geratu jaurtiten ibilteari.

INKA-INKATA EGUNERO, DIRUA EUKI EZKERO.

Dirua artzen eban bakoitzean mozkor-mozkor eginda ibiltzen zanagaitik.

INUZENTE POTENTE, BIXAR SAN BIXENTE.

Iñuzente egunean, aza muskarra amuagaz bateri, berak igarri barík atzean lotu ondoren, umeak euren poza erakusteko erabilten eben esaera destaintsua

INUZENTE POTENTE, TXAKURRAK BUSTANA TEN-TE.

INUZENTE POTENTE, AZAK JAN ETA ATZIAN BRAS.

Esaera eta erdi kantu oneik, aurrekoaren antzera oituten dira.

INUZENTE DEMONIENA!

Batek gauza bat txarto egin eta ezer esaten ez dakiala esateko.

INUZENTIAN OGIXE, JAUNA MISERIKORDIXE.

Iñuzente edo ez jakiñakaitik errukia artuaz esaten dana.

IPARRA, BALTZA, FINA NAI GORRIA, BETI IPARRA.
 Iparra, batera nai bestera deitu, beti dala gogorra (Eguraldia)

IPARRA EUKI.
 Dardara euki. Nekez itz egin. Edo asko edan ondoren, ezin asmatuta.

IPARRA DAGONEAN JAKEA SOÑERA.
 Ipar eguraldiagaz kontua euki bear dala esan nairik.

IPITXA KALI? NUNGO KALI?
 Ipitxa kalea, Likona torrearen aurreko ibilbide bat, kaletzat ez da artzen, ia ezagutu be ez dalako egiten, eta ortik esaera ori.

IRABAZI ZORUAK ATZE GALDUA.
 Zoro irabazitako diruak, atze onik, ondoren onik ez dabela ekarten.

IRU AREOPLANO PASA TA BAT ITXASORA JAUSI, EKARRI SEBERIANOK EKARRI, SEBERIANOK BARRAKO ONDUAN ITXI.
 Umetako kantua

ITXASO BETEKUA.
 Gauza andi bat adierazteko.

ITXASO BETEKO GUZURRA ESAN.
 Guzur andia esan.

ITXASO BETEKO MOSKORRA EUKI.
 Moskor itzala arrapatu.

ITXASOAN EZ DAGO JARRILEKURIK.
 Itxas bizitza neketsua dala adierazteko.

ITXASOAN URA TA ZERUA TA KONFORME EZ DANA ONDORA
 Itxasoa, dan lez artu bear dala esateko.

ITXASOAN EZ DAGO INPERNURIK, GOIAN ZERUA, BEIAN ONDUA.
 Itxasoan Jaunaren grazia bear dala bakarrik, esateko.

IXO TA IXILIK, A ZE ALPERRIK.
 Ixildu eragiteko agindu utsak ez dirala bakarrik bear.

IXILTZEKO KONTSEJURIK ONENAK MATALAZU-RREKOAK
 Ixildu erazteko, lenengotik matrailleko batzuk emotea onena dala

**IZAN DA IZANGO, JAN DA JANGO, KANPAIAK
GOIZ ETA EGUERDIAN, ESAN ETA ESANGO.**

Bata nai bestea gertatu, kanpaiak daukela
beti azken berba.

IZURDAK BERTAN!

Uste ez diran batzukin gertaten danean.

IZURDARIK JAKINTSUENAK, LEGORREAN.

lñoiz "gantzeru" edo antzerako esan-naiez
erabiliaz esaten da ori.

IZURDAK NAI DABEN TOKIRA EROANGO ZAITUE.

Atzipetu nai zaituenak, euren erara erabiliko
zaituela adierazteko.

**ITXAS EGOERAK ETA KOLOREAK
ETA IKUSPEGIAK.**

AIZE BALTZA

AIZE BERALANA

AIZE BERDEA

AIZE EPELA

AIZE ERRE

AIZE FRESKO

AIZE GANGAR

AIZE GORI

AIZE OTZ

AIZE USTEL

AIZE ZAKAR

AIZE ZORO

(Itxas egoera...)

BITS-APAR FRESKURAN.

Ur-bitsak jasoten daben txipristiñen fresku-
ran.

BRIXA EPELETAN.

Itxas-aize bigunetan.

EGO GORRITAN

Ego-aizearen ezaugarripean.

EGUZKI GALDATAN.

Eguzkia tope-topean dagonean.

ERREKAIZE ORITAN.

Errekaize bigunetan.

EURI IZOTZETAN.

Euri otz izoztupean.

GALERREN LARRIA.

GALERREN ZOROA.

Gallerrena (galema) beti izaten da bildurgarri
ta kezkatia

GOI ILLUN.

Laiñoz betepean

GOI IZARTSU.

Laiño bako gauetan.

GOI TAPAU.

Laiñoz betetako egunean.

GURMA SARRATU

Laiño astun, baltz, ezer ikusi ezinean.

IPAR AIZEA.

Itxasertzean iparra ez da ain zuzen "norte",
este baiño.

IPAR BALTZA.

Ipar-aize sakon, minkorra.

ITXAS GORRI

Erre-kaize egunetako illunabarrean.

KALMA ZURI

Itxas baretan.

BARE-BARE

Itxasoa geldigeldi dagonean. Calma chicha.

BAGI

Beko olatua.

ERLAIÑOTAN.

Be-laiñotan.

LAIÑO IZERDITAN

Laiño bustien artean.

LAPITZ AUTSA

Itxasotik begiratuta kosta aldean igarten dan
ifluntasuna.

MENDEBAL BUSTI.

Mendebaletako euripean.

OLATU URDIÑETAN

Eguraldi oneko olatuetan.

OLATU BALTZETAN.

Itxas-beko ekaitzetako olatuetan.

OLATU BIGUN.

Aize bigunak ataratako olatuetan.

SARGORE ERRE

Sargore larri, arnasik artu eziñekotan.

UR-ILLAK

Mare illak.

UR BIZIAK

Mare biziak.

ZIRRI-ZARRI.

Marejada.

ITXAS TXORI ETA EGAZTIAK

Izen asko, batzuk tokian tokiko, ezagutzen dira itxas txori eta egaztienak.

Gaitu edo teknikoen sailkapenik zabalena onela agertzen dira:

AATAK

Baltza

Baltz-egazuria.

Basa-aata.

Buztan luzea.

Ekaitz aata.

Gorrixka

Ipar aata.

Moko zabala

Txistularia.

AATA MURGILARIAK.

Murgilari

Murgilari gangorduna.

Urre begia.

AATA ZERRAK

Zerra,

Zerra andi

Zerra txiki.

ANTZARRAK

Piko baltza.

ANTXETAK

Buru baltz.

Iru-atz.

Mogo gorri

Moko zorrotz

Sabina

Txiki.

ITXAS EGAZTIAK

Aliota andi

" txiki

" txintxabaltz

Txilinporta lepo baitz.

lepogorri

txiki.

Murgil errege

Txirriñe

Sanga

Ubaroi

ITXAS ENARAK.

Andi

Baltz

Ega zuri

Musu zuri.

TEKNIKAZKO SAILKETA era orretan egiten ba da be, gure arrantzaleak beste izen berezi oneikin ezagutzen dabez inguru oneitara agertzen diranak.

Nungo deiturak diran ezagutzeko H (Hondarribia) eta O (Ondarroa) letrekin bereiztuko doguz, orokor deitzen diranei ezer geitu barik.

ITXAS TXORIEK EZAGUTZEKO ARRANTZALE DEITURAK:

Ate kopenai (Kofrea)

Babarroso (belea) O

Barekatz (enara)

Bolberin (kaio baltza) H.

Broju (kofrea) H

Gabai. Azkue'k Ondarroa'n bakarrik entzundako berba lez agertzen dau bere iztegian.

Gabarraso (kaio baltza) H
Kaiarra.
Kaixarra O
kaio (zuria)
Kaixu O
Kaio baltza.
Kapentxori
Kopla
Kotarro O
Kulaberde (Martín arrantzalea) H
Kulardi O
Mariko (piko oriduna) H
Marleska H
Marloi (Itxas oillarra) H
Martin
Martin ontz (Ultza baiño zuriago) H
Ondar txori (Martin) O
Puyanta (itxas bela) H
Sakillo (egaztia) O
Txirri (kaiorik txikiena) H
Txirriña (kaiorik txikiena) O

IA, BEDARU ONDOREN, IA (EA)

Norbait arrotuta edo jarkiten daneko esaera
da Esate baterako:
Ikusten berau? Ume moko zikiñau? Ia, Ia ...
Eta erantzuten dakie:
Ia? Bedaru ondoren, Ia!

IJITO SARDIÑA

Sardiña andi, zazkarrari deituten dautse,
iñork nai ezta egoten dalako.

ITXAS LAKATZA ONDARROAN, ITXAS TRIKU MUTRIKUN.

Itxas triku (erizoen) deitura bikotxagaz jola-
sean.

ITSUKIAK EZIN ITSEKI.

Ikusten ez dauanak ezin arrapatu.

ITSU IKASIAK BIRRITAN DAKI.

Itsuak, euren gaitasunez, berezitasunak dau-
kezala eta gaitasunak adierazteko.

ITSU BURUGOGORRA ITSU TA ERDI.

Itsua izan eta oraindik be bumgogor, bere buruaren aurka diarduna dalako.

ITZ ETA PITZ, SITS ETA BITS.

Itzen jokia baiño ez dirala, batera esan nai bestera.

IZANA ESANEAN DANEAN, SANTUAK AMENAN.

Izana, esana lez danean, danak pozik, iñok zer esanik ez.

IZAR-ALBIZAR.

Venus'erí deituten dautse. Goizeko izarra.

IZKIRA TA KIRRIZKAK LEZ EZIN ALKAR IKUSITA.

Arrizetan izkirak aeta kirriskak, karramarm zapal txiki baltzak, beti alkarren aurka ibiltzen dirala gogoratuaz.

IZARRAK KIÑUKA, EGUALDI TXARRA LASTER.

Izarrak kiñuka eta saltarí dabiltzanean esaten da


ITARGIXAK ERASTUNE, EGUALDI TXARRA NAI DABENAK LASTER DAUKA ERANTZUNE.

itargi inguruan erastun edo anillo oríska danean esaten da.

ITARGIXAK IZARRA ALBUAN, AIXIK JOKO DAU NUNUN.

Itargi alboan izar argi bat dagonean, arek aixea bialtzen dauala adierazi nairík.

Nu-nun Ondarroako esaera da, nunbaiten edo antzeko adierazpen bat emoteko.



TXANGURRU
PATTELA



JABOI ASKO MIÑIN ETA ESPANAK ZIKIN.

Kontu gozo asko esan, baiña berbeta zikiña.

**JAGI JAGI EUZKOTARRA ASKO, TA KOMENI
DANEAN MARIA OLLASKO.**

Dei abertzale asko, baiña komeni danetan
ardurarik ez.

**JALEA ETA JANGURA EZKONTZEKO GERATU
ZIRAN DOTERIK EZ-DA.**

Jatuna eta jan gura ez zirala alkartu diru fal-
tan.

JAN DA JATEKO.

Sekula asetzen ez dana.

JAN DA LO, KARLISTENA.

Kariistak Jan da Lo izeneko batalloe bat euki
eben. Origaitik erabilten da esaera ori, dabi-
llan eran galduko dauala esan nairik.

JASO TA JAZO, ARTAJORRAN EZAGUTU EI ZIRAN.

Berba berdintsukaz egiten diran esaera.

JARDUN ANDIKO.

Gizon langille ta ekarri andiko.

JATEKO TXARRENTZAKO GOSEA LAKORIK EZ.

Gosea dagonean ez dagola janari txarrik.

JAUBE BAKUA.

Kalean negarrez billatzen dan ume, edo an-
tzeko gertaeratan.

JAUBE BAKO BATELA SARRI ONDUAN.

Nok zaindu ez daukan batela, sarri gertaten
dala urez beteta.

JAUBE ASKO, IRABAZI GITXI.

Txalupa bat askorena danetan esaten da.

**JAUBE ASKO TA NOK ZAINDU EZ, TXIMINITIK KEI-
RIK BEZ. (Be ez)**

Jaube askoren txalopan sarri gertaten dala
bata bestegaitik ikatza be faltatea.

**JAUNGOIKO ASKO NEGARRETAN ETA ZER DIRUA
DAGONETAN?**

Ezbearretan erregu asko, ta dirua dagonetan
or konpon.

**JAUREGI ASKO PAPERETAN ETA ETXEZARRETA
APELLIDUAN.**

Etxe askoren jaube izanarren Etxezarreta
(etxe zarrak) abizenean.

**JAUSI TA JASO EZIN, JANIK BE IRUNTZI EZIN,
NIRE URTEAK KONTATU LEIZ JUAN ZIRANEKIN.**

Agure baten esaera.

**JAUZKORRA EI DA GIZONA ETA EMAZTEA ZIRIKO-
RRA.**

Gizona berez ei da zitzaldietan errez jausten
dana, baiña emaztea zirikalaria.

**JIRAULETA DABIL TXAPELA, BARRUA BE EZ DAU
EUKIKO EPELA.**

Bete-bete eginda dabillanean, txapela be
okerretara ipinita.

**JORRATU TA IZORRATU BATERA EGITEN EI EBEN
BASERRIAN.**

Baserrian lanean dabiltzala egin ei leike
andratan be.

**JORRATU TA IZORRATU BATERA EGITEN EI EBEN
BASERRIAN, ORRELAKO AUKERARIK EZ MARINE-
LAK ITXASOAN.**

Lengoaren jarraipena. Baserrietan egiten
danik, mariñelak ezin egin itxasoan.

**JOAN ADI MARKINA'N; JUAN ZAITE ONDARROA'N
ETA JUAN BA, BERRIATUA'N.**

Iru erri oneitan aditza erabilteko dagon
bereiztasuna.

**JOSI EBENAK JO EBEN KRISTO. JO TA JOTEKO
BETI GURE TXILIBRISTO.**

Gizon gaiztoakaitik esaten da, beti iñor jote-
ko gogoz dabiltzanekaitik.

JUAN ETA JUN, ALDARREGAZ DANTZA LOTUN.

Juan edo Jun deitu, bardintsu dala esateko.

JO TA ... APURTU


AUSI


BALTZITU

BLAST

BERA
ERRE
ETEN
GRAK
MAKALDU
IL
TXIL
ZAPALDU
ZUZITU.

Joak ekarri leikezan ondorenak.





KAELA JO.

Txalopako karelean jausi.

KAIELAK BAINO BEGI LUZEAGO.

Begi zorrotza daukanagaitik esaten da.

KAKA LEKUA ERREZUAN.

Gizon txikia.

KAKOTA KENTZEKO BOTIKARIK ONENA, EGUN SENTIKO TERRALAREN GOZAMENA.

Kakota = moskorra. Goizeko aizea onen.

KAIOAK MOLLA GAINEAN, DENPORALEA ITXA-SOAN.

Kaioak itsas ertzera urreratzean, ekaitza itxasoan.

KALATIK URRLIN DAMIAN, SANTUAK EZ DAGOZ AMENIAN.

Bat bere tokitik urtenda ikusten danean, etxean asarrea egongo dala esan naiean.

KALA.

Arrantzaliak itxasoan oituraz arrantzaten daben arrain tokiei deitzen joko kala.

Kala'gaz ainbat izen osotzen dira, batzuk esateko, arrain toki diran lekuen izenak:

Andra kala,

Arrain kala,

Kostarren kala,

Justo kala,

Mutriku kala,

Tribis kala (izaro) eta abar.

Bestetik izaki bat edo gai bateri geituta. Ala: *Kala beuna*, tokiko sonda zenbatekoa dan igarteko.

Kala gizona, arrantzale ona dala adierazteko.

Kala pitxi. Ondarroan mitxeleta, pinpilinpausa edo beste izenez ezagutzen dana, kala pitxi izenez ezagutzen da.

Kala potin.- Kalara joateko erabilten dan ontzia, txalopea

Kala txori.- Itxas txori.

KALABAKA IBILI.

Ume jokoa.

KALADAN KALADAN PANTXO BI.

Pantxoak moltsoka ibiltzen dira eta erraz arrapatzen dira, jaurtiera bakoitzean bi be erraz artzen diralarik.

KALABUXIN KALABUXIN ZAPATERO, ATXINGO BAT, AMARGARRENA NO PEGAR. ZEIN DAN BA DAKIZU, ARTU LEPOAN ETA EKARRIZU.

Batek beste bat bere belaunetan artuta, lepoan joaz kantatzen dauetsa ori eta bereala asten da lagunena billa, eta al ba dau ogei zenbatu orduko ekarri bear izango dau. Bestela barriro bera arpegiz bera belaun gainean barriro jarri, lengo asiera artzeko.

KANA BETEKUA.

Gizon oso, zuzena.

KANA BI SARE EZ DIRA SARE ORRI, SARE ZATI BAINO.

Kanaka saltzen diranak, zatiak izaten diralako.

KANDELARIOTAN TXALOPAK SARRI KATETAN.

Kandelario otsaillean izaten da eta sarri egoten dira il onetan ekaitzak. Origaitik txalupak lotuta.

KANPO EDER, ETXE KALTE.

Kalean alai, etxean gerran.

KANPOAN USO, ETXEAN OTSO.

Aunekoaren antzeko.

KARDAMUZ BETETA DAGO GURE ARASA, KARDAMU TA SITSAK BA DAUKE GUREAN ARNASA.

Etxe zarrean sitsa ta autsa ugari.

KANPAIAK SANTA CLARAN, GURMAK BARRAN.

Portuko sanera ezin billatuta dabilozan txalopentzat jotzen dira.

KARRAMARRUAK LEZ BETI ATZERAKA.

Ezetan aurreratzen ez dabenagaitik esaten da

**KARKABAN KATUAK MARRAUKA, NUNBAITEN
AIZEAK ORRUKA.**

Katuak marrauka dabiltzanean, eguraldi
aizetsua iragarten dabe.

**KATAKUMEAK URETAN, AMAEN BATEK SORTUKO
ZITUN BA EGALETAN.**

Iñoiz katakumeak uretara jaurtita ikusten
diranetan, etrukia agertzen.

**KATUAK MARRAUKA ZERKAETAN, GIZONAK
ANDRATAN BASTERREN BATEAN.**

Katuak marrauka dabiltzanean, gizon-emaku-
meak be ez dirala urruti ibiliko alkarren
atzean.

**KATANARRUAREN NARRUA ETA KATAMIXARRARE-
NA, AUREZ BETETEN DIRA DENPORAK BAINO LE-
NA.**

Erraz usteltzen dirala adierazteko. Itxura
bakarrik daukela.

**KALEKO JAZTETXEAN ALDATU NITZAN, BASOAN
BAINO KALEAN EDERRAGO NITZAN.**

Jaztetxea deitzen dautse baserritarrak, errian
sarrerako kaleko etxeetan, atadian, aldatzeko
aukeratuta eukiten daben tokiari. Oituraz
bardiña izaten da.

**KALEZ KALE MARIKONTZE, ETXEAN LIXIBA EGITE-
KE.**

Kalean dabillanean etxeoandrea, etxean
zeregiñak egiteko egongo dirala.

**KARKABU ONEZ EGINDAKUA, EZ DA GAIZTO AR-
TZEKUA.**

Intenziño onez egiten dana, ez dala gaizto
artu bear.

KINKIÑAK JOTA.

Lo gureagaz.

**KIRKILLA BAT, KIRKILLA BI, KIRKILLAK DAUKAZ
AMABI. AMABITIK AMAIKARA, AMAIKATIK AMARRE-
RA, AMARRETIK BEDERATZIRA, BEDERATZITIK
ZORTZIRA, ZORTZITIK ZAZPIRA, AZPITIK SEIRA,
SEITIK BOSTERA, BOSTETIK LAURA, LAUTIK IRU-
RA, IRUTIK BIRA, BITIK BATERA, BATETIK BAPEZE-
RA.**

Umetako jokua.

KITARREA JO EUTSAN PERUK ANDREARI TA UMEA EKARRI.

Gizon eta andrearen alkartzearen esateko era bat.

KIRKILLAK MENDIAN ETA ANDREN SABELIAN.

Kirkilla andren zerari deitua.

KITU KITU, EN PAZ EN PAZ, INPERNUKO BARRABAS.

Umeen artean zerbait ordaindu eta kitutzean erabilten dan esaera.

KOASTA APURTU.

Arrantzale berbetan sudurra apurtu.

KOBRUA EMOTEKO IÑOR EZ, ZORRAK GEITUKO DIRA ERREZ.

Lanerako iñor ez ba dago, zorrak ugarituko dirala.

KOLAIXO SIKUA LAKOXIA, ESTUA TA LUZIA.

Kolaixoa, arrain luze motakoa da.

KORAPILLOA NAI ORAPILLOA, OGIA ETA OPILLA LEZ DIRA.

Batera esan nai bestera, zer esana erraz ulertzen dala.

KORAPILLO MOTAK.

Ainbat dira. Arrantzale baten esanetan, txalopetan eurak oiturazko zituenak onela delten ziran:

ARRUNTA

ARRUNTA ARTZALIAN

KARAKAL

KATE

KORAPISTA

KROKA GILTZA

LASTIGIA

MARINEL KOTA

MARINEL ORAPILLOA

TXIKOTEKOA

ZORTZIKOA.

Esandokoen gainera ba dagoz beste korapil-
lo izen oneik:

ATSO KORAPILLOA.

ARTZABIAK, au da:

Kurutze artzabiak.

Biurrezko artzabiak.
Botoi artzapiak.
BARTZAK
ESTROPO KORAPILLOA.
ERROSETA
KOTA
KOTA BI eta abar.

KUKUMINO KANOLA, KANABERIA LARROSA, PITXOTE TA PITXOTE, JAUNAK NORA ZOAZTE? KALIAN GORA KALIAN BERA, BIRIBILTUA ALKATE.

ESKUAN DAUKAT AUZIXA, POLTZAN URREGORRIXA, AMUMATXUAK BALEKIXA ATAKO LEUTZAKE BEGIXA.

Ume joko eta kantua.

KANA SAGARRAK.

Sagar andiak. Bana-banakoak.

KASA IBILI.-

Txomin'en kasa ibili.- Txominen imdietan ibili.

KOSKAN EROSI.

Ordaindu barik, makilla baten egiten dan koska, zorretako ezaugarrian erosi. Oiturazko zan len okindegira ol-zapaltxo bategaz joatea, eguneko ogien billa. Eta zenbat ogi, ainbeste koska egiten eutsazan okiñak. Gero, antxo amaieran edo ta atun sasoi kitutzen ziran ogi zorrak, eta bam'ro ol eta makilla barria asi. Iñor ez zan lotsatuten origaitik, geienak era orretan bizi ziralako.

KONPASA GALDUTA, ETXEAN EZIN BILLATUTA.

Moskortuta algaretean.

KORDELINAK ONDO BATU TA TRETZAK ENKARNATEN GU LAKORIK EZ EGOAN SASOI BATEN.

Besigutarako gertaerak egiteko gaitasuna agertu nairik.

KORKOTXA ZALAKO PERU NARRU, DANAK DEITZEN EUTSEN KAKANARRU.

Gizon bateri, aitxakien bat daukanean, beste edozer deituten jakola.

KOSKONDU ONDOREN, BIZARRAK UR TEN.

Bat arrotuten asten danean.

KOSKONDU ORDUKO NOBIXOKA, LASTER DA NORBAIT OILLO LOKA.

Gaztetzen asi orduko maitasun billa dabillanak, ondorena erraz ekarri leikela.

KOSTAUAN JARRI ORDUKO KAKALARRI, ORRELA-KO GIZONAK EZ DAU IRABAZIKO SARRI.

Besteren bat urreratu orduko bildurtzen danak, zeregin gitxi daukala bere ekiñean.

KOSTAUAN IKUSI ORDURAKO, MANU ZEMAIKA ESTROPADARAKO.

Lengoaren besterakoa. Bat urreratu orduko, bereala besteari zemaika.

KUKUKA IKUSTEN GENDUN MATXINPLAKA, GU ESKOLA IGESIKA, KURIKA.


Matxinplaka erri-zain bat zan. Bera umeak ezin zainduta, ta umeak bera nun ebillan zelataka, eskola igeska.

KUKUN PRAKAK JATEN GENDUZAN, SAN JOSE LORAK BAINO GARRATZAGO ZIRAN.


Umetako oroitzak. San Jose lorarik ezean kukun prakak deitzen diran lorak be jan.


KUKULUN KUKULUN SAN PEDRO APOSTOLORUN.

Antxiña abadeak otiturazko eben sermoi asieran gaia latíñez esatea. Berriatua'n abade egon zan "Laidon" ek gai ori erabilten ei eban ango parrokian, san Pedro egunean.



ATSO-KORAPILLO





LABAMIÑIK BARIK OGIK JATEN MIN.

Labamiña ogia jagiteko izaten da eta a barik ogiak ez dauala izaterik adierazteko.

LABATIK ATARA BARRI DAN OGIA LAKOXEA.

Beroegia.

LANBASAGAZ BATZEKO MODUKOA.

Tartetako zikinkeria. Lanbasa, bateletan erabilten dan garbigaillua da, egur kirten bat eta ertz baten eun ztiak lotuta.

LANTZIN LANTZIN.

Tarterik tarte. Noz-nai.

LANTZOI GALANTA DA ORI.

Lantzoia, arrain izena, tenteltzat erabilia.

LAPA ZORRI.

Zorritsu bat.

LAPA UTSA.

Albotik kendu ezin dan bategaitik.

LAPATARAKO EGUNIK JATORRENA, AUTS EGUNA.

Esaera be ba dago: Auts eguna, lapak jateko eguna.

LAPAK JAN DA LO.

Bijili eguneko bazkaria.

LAPAK JAN BEAR DIRA AUTS EGUNEAN, GARIZUMA ASTEKO, ANTXINAKOEN LEGEAN.

Oiturari jarraituaz.

LAPIKOKORIK NAI EZ ETA ANGULA MANGULA? ORI EZ DA GOSEA, ORI DA GULA.

Jan nai ez da dabillanagaitik esaten da.

LAPIKO TXIKI.

Barru txiki, kontu esantzaille.

LAPIKO BETE MORIKIL JAN DA BE, GURE TOTOLLO JAN DA JATEKO.

Gosekil bategaitik esaten da.

LASTUA ATARA.

Zapladak emon. Gogor jo.

LAPURRAN BEGIXE.

Ostuteko beti zur dabillan bategaitik esaten da

LAPURRAK AN ETA GANTZERUAK EMEN, DANAK BE BETI OSTUTEN.

Deitura bat edo bestegaz be, artako dans, beti lapur.

LASTO ESTROPADAK.

Umetako joko bat. Edozein ur potsutan, kañaberaz egindako oriizi txiki itxurakoak egiten ziran, eta eurekaz *z&n* lenagoka jokatutu.

LAPURRAREN LAGUNIK ONENA, LAPURRA.

Esaera eta sinistea.

LATIÑEKO PALU LAKOXE ZUZENA.

Latiñeko palua deitzen jako, izen orretako bela erabilteko txalopak eukiten daben agari.

LAU, IKOMELAU.

Itz jokoko esaera bat.

LAU, LAU, LAU, SARDIÑA MAKALLAU.

Kantu bateko itz-jolasa.

LEBATZ KUMIA.

Moskor txikiari esaten jako.

LEBATZA; ETXE BETEKO LEBATZA.

Moskor andia

LEBATZA. OSASUNA DAUKAN POBREA EZIN IKUSI, GAIKO JAUSTEAN EZIN IRUNTSI.

Lebatza, gaur ugari egonanen, len aberatsen janari zan, eta gaixoentzat agintzen zan.

LEBATZA EZIN JANDA BAIÑO MARMÍTAKOA OBE.

Osasun adierazgarritzat esaten da, lebatza mediku arraiña dala esan nairik.

LEBATZETAN.

Antxiña, txalopetan, mariñelik zarrenak ibiltzen ziran.

Orretarako bakoitzak eroaten zitun otzara eta kalako kordelak.

Otzaran jakia eroaten zan, eta ardaua, ogia, liñabia (sokakin karelik ez zulatzeke egur zati bat), atzandelak (atzamarrak zaintzeke eunezko zatitxoak), bemna, kutxiloa, txanpela (im oin luze inguruko soka zati bat, leba-

tzetako aparixutan erabilten diran lau soketa-
tik bat), aria eta amuak eroaten ziran.

LEGRAMUA BAINO BALTZAGO.

Gauza zatar, baltz, itxusiagaitik esaten da.

LEMAKANIA OKERTUTA DABIL

Algaretean ibili, erdi moskortuta.

LEMAN ZURRA EZ DANAK ZORRA.

Patroitzarako gizon zurra izan bear dala itxa-
soan, bestela arraiñik arrantzatu ez eta zorra
egiten dalako.

LENAGO ZAN ORI LUKAS, ORAIN LAKATS.

Esatea lez, lenago zala fiña eta orain balda-
rra

**LEPOAN JO TA KAIXOKA, ZORRIK EZ DA
ORDAINTZEN LEPOKA.**

Koplakin ez dala iñor ordaintzen.

**LEPO TA BESAPE JO TA JO ESKUAK, OTZA ZER
DAN EZTAKIE LEGORREKUAK.**

Lengo denporetan, berogarririk ez eta arran-
tzaleak txalopa gaiñetan etorten ziran, beso
biak kumtzetuaz lepo ta besapeak jotzen
zela-ala berotzeko. Origaitik legorrekua ez
dakiela zer dan itxasoetako otza esaten da.

**LIBURUAK LATINEZ ABADEAK, TXALOPAN DAUKA
LATIÑA MARIÑELAK**

Txalopetako latiña, izen orreíako aize-oiala,
belia da

**LÍÑABEA LENENGOTIK IPINI BATELEAN, GERO IPI-
NI EZ DAIZUN DERRIGORREAN.**

Líñabea, oi zapal zati bat, lenengotik ipini
bear dala, aparixuak bateleko karel gaiñea
jaso-ala zulatzen ekin ez dagien.

**LO, LO, LO TALO, TA IGARRI BARIK MUSTURRA
JO.**

Emai ibili bear dala gauzetan, igarri barik
norbere aurka ekin barik.

LOKATUKO ZAITUT!

Gaur etxera arin ez ba zatoz, lokatuko zaitut!
eta orrelako esaerak erabilten dira. Lokatu,
ollo loka lez mantsotu eragin nairik esango
da, dimdianez.

LOTSA ARTU BEAR LEUKENA LOTSA EMOTEN?

Lotsa emoteko, norberak be lotsa gordeten jakin bear dauala.

LORO FINA LAKOXEA.

Loroa arrantzako aparixuetan erabilten dan alambre fiña izaten da.

Gizon begiratu eta zintzokaitik esaten da.

LORO ETA TANTZAK, MERKEAK URANTZAT.

Loro eta tantzak dira, ain zuzen, aparixutan amuen eutsigarritzat erabilten diranak. Oker-tu eta tart erraz egiten dabenak izan ezkerro, urak eroaten dauz. Ortik esaera.

LOTSA GALDU ETA DIRUA EGIN, ORRELAKO DIRUAK EZ DAUKE ZARATA FINIK.

Lotsagalduta egiten dan dirua, beti ez dala garbi-garbia esan nairik.

LOTSAZ DABILLANAK, POLTSA ONA.

Garbi jokatzan dauanak, poltsa ona eukiko dauala.

LUZARO NAI DABENAK BIZI. OILLOEKAZ OERA, TXORIEKAZ JAGI.

Bizimodu osasuntsu bat eukiteko era. Goiz lotara ta goiz lanera.

LUTXARRERI GEIEGI DABIL. AU ARRAIÑA BA LITZ, MUTXARRI.

Uzkeriak jaten dabillanagaitik esaten da. Mutxarria arrain me odol bakoa da.

LAPAS Y MONGOLINOS, TXANTON ERREKA, ONDO GOZOAK DIRA LABAN ERRETA.

Esaera.



MADALEN ARANTZEIKO, ODOL ZIKINAK GARBITZEKO.

Arantzadi baserri inguruan Madalena'ren ermita dago, ta gorago odol zikiñak garbitzeko eta osatzeko famadun potzu bat.

MAIATZEAN POBRIENTZAT BE LEBATZA.

Onek bera ziurtatzen dauan esaera dauka: Etorriko da Maiatza jango doguna lebatza.

MAIATZEKO LORARIK EDERRENA, ANTIXOA ANDIA.

Arrantzaleentzat il au izaten da antxoatako sasoi ona.

MAITATZEKOTAN ARRAIÑAK URA LEZ MAITATU EDO BAPEZ.

Olgetan ibili barik, benetan asteko garaia dala esan nairik.

MAKALLUAK ESKEGITERA BEARTU GENDUZAN.

Aldi baten, edozer jairen aitzakiz, banderak leioetara atarateko agintzen eben, eta orreri deitzen eutsen destañez makallauak eskegi-tea.

MAKALLAUA BAIÑO ZAPALAGO LAGAKO ZAITUT.

Bateri zapladak agintzean.

MALMETIDUTEN DANA BET! KAKALARRI.

Estutzen dana, beti estu.

MALUTAK BATZERA JOAN ETA BASERRITARRA ARTABURUAK OSTUTEN GEBILTZALAKUAN LARRI.

Malutak artabumko azalak izaten dira. Atunetarako batzen ditue mariñelak, amuetan ipini eta atunari jatekoa dalakoan urreratu eragin eta amuan espanak sartuta arrantzatu al izateko.

MALUTAK.

Donosti'ko arrantzaliak TXURIKINAK deitzen dautse. Bermiotarrak LASTUAK.

Ba dagoz malutak batzea euren ogibidetzat artuta dauken batzuk.

Oneri maluteroak deitzen dautse.

Ganbaretan legortzen ditue malutak, beti kerizpean. Eguzkiak kalte egiten dautse.

Lenengotan keiagaz zikatzen zituen, azufrea erreta, kajoi andietan.

Batzuk lejia uretan garbitzen zituen, beste batzuk egozan lez saldu.

Lejia-uretakoak, itxas uretan sartzean, zuritu egiten ziran. Besteak oritu.

Maluta orriak batu ta txortatan ipinten dira saltzeko.

Salduta gero, arrantzaleak eurak orraztu egiten zituen. Orretarako kortxo baten orrazzak ipini, gero ol baten, eta orrela orriak aritu egiten zituen eta arimtakoak ipinten ziran amuetan.

Orain, maluta orde, plastikazko sardin, olagarro eta abar erabilten dituez amuetarako, orrela atunei, egaluzenai egalaburrei urreratu eragiteko, beste arrain txikien batzuk diralakoan itsu-itsu jatera.

MANJUBA EDERRA.

Arrain moltsoak toki batean inguratu eta gero sarean arrantzateari majuba deitzen jako.

MAMUAK ETORRIKO DIRA.

Ondarroan umeei bildurtzeko, zemai ori egiten jakoe. Mamuak, eleiz edo parroikiko gainean, ango tentegarrien goietan dagozan arrizko irudiak dira.

MAMUN MAMUN KLAUSK.

Ezer egingo ez dabelakuan, klosk! (Erderazko las mata callando antzera.)

MANJUBATAKO ANTXOBIA SARETAKOA BAIÑO BIZIAGO DA.

Saretan arrantzaten dana sarri gau guztian sarean egona dalako, eta manjubakoa, sarri, moltso txikia ba da, bereala goratzen dalako.

**MANDAZKETAKO URA EDAN? LASTER ZARA BES-
TE MUNDUAN.**

Mandazkak iru lau tokitan billatzen dira erri sarreretan.

Gaur, garbitzen ez diranez, ur zikin toki. Ori-
gaitik zema ori.

MANKAL JASOTEA DAUKAGU ELEIZAN.

Mankala eleizako sepulturetan ipinten dan
pañoari deitzen jako.

Mankal jasotea, urtea betetea, oitura ori
kentzea gertaten dan eleizkizunari deitzen
jako.

**MANTZIÑA ALAKOA BENTANAN EGOTeko BE EZ
DA ORRAZTUTEN.**

Mantziña-ganora bakoari deituten jako.

**MANU GUREAK AINKA AZUR BAT ETXEAN ETA
BESTEA TABERNAN.**

Etzetik urten orduko tabemara duan gizona-
gaitik esaten da

MANU EZ NAGO ORAINTXE.!

Guk manu = flojo antzera erabilten dogu.
Origaitik esaera au larri nago edo antzera-
koen bategaz ordezkatu leike.

**MARE-ERROTA ERRIAN EGIN EBENETIK, URUNIK
EZ DA EKARTEN OKOLATIK.**

Mare-errota, itxasoko uren gora-berekaz
baliatuta erabilten dan errota da.

**MARI GUREA MARIA GORA DA. (Txirla andia. Maria
gora = txirla andia.**

**MARIA GUREA SUKALDEAN, BAZKALDU BEARKO
ERRUSAINAN.**

Sukaldea bear lez zaintzen ez dakianagaitik
esaten da.

**MARI MORKONA, EZ KALERAKO TA EZ ETXERA-
KO.**

Ondarroan andre itxusi, zikiñari deituten jako
morkona.

**MARINELAREN EMAZTEA GOIZEAN SENARDUN,
ILLUNTZEAN ALARGUN.**

Itxasoko arriskuak adierazi nairik.

MARIXE BEIKANeko ARRIGORRIN BUELTAN.

Lorik egin nai-ezka ibili ondoren, erdi lotan

jausten igarten diran umiekaitik esaten da.
Marixe Beikaneko, au da Begi Gaiñeko.

MARKIÑAKO AIZEAK GONA BARRENAK AIDEAN.

Markiña'ko aizea deitzen jako emen erreka-
aizeari.

MARKIÑAKO AIZEAK, LIZUNAK

Gonak aidean erabilten dituelako.

MARKINALDEA GORRI. ERREKAIZEA GORI.

Markiñaldean odei gorrizkak ikusten dira-
nean, aize beroa

MARKINALDEA GORRI, LASTER DOGU EURI

Errekaize ondoren euria etorriko dala.

MARMOKAZ BETETA DATOR ANT XO BIA.

Itxasoan urtzen joaten dan arrain berezi bat
da marmoka.

Antxoa artean naastuten danean, kalte andia
egiten dautso,

azala be errez jaten dautsalako, eta anxoata-
ko langilleei eskuak be berotu eta mindu.

Beste era baten, arrantzale errietan marmo-
kia deitzen dautse emakumeak euren ille-
koari.

MARZALA IZANA DA BETI ONDARRU.

Ondanru beti leiala izan dala

**MARTIKO ANT XO BIA, ERDIA UR ETA ERDIA MAMI-
ÑA.**

Martian agertzen dan antxoa oraindik txikia
izaten dalako.

MARRAIXUAK BA DABIZ LEORREAN BE.

Marraixuak, arrain gaiztoak, legorrean be
egoten dirala

MATRAILLU TA ULTZI LAGUN ON BI.

Matraillua ta ultza beti alkarregaz ibiltzen dira-
lako.

MATZAKUKO PAROLA

Gizon argiagaitik esaten da

MATZAKUKO PAROLA AMATAUTA.

Ardaurik ez basoan.

MAZIRIK BOTATEN EZ DAKI ORREK.

Mazia botatea, arraiñen janaritzat zabaltzen
dana izaten da

Beste era baten, neskak erakarten ez dakiana.

MAZIRIK ONENA MAKALLAU URDAILLAK. ETA ARBIAK.

Txanda baten Nomegatik ekarten ziran barriletan, eta zatitu eta zeetuta itxasoan zabalzen ziran, sardiña naian.

MAZIRIK EZ ZABALDU ARRAIÑA EMEN NAGOKA DABILLANEAN.

Arraiña pillotuta menderatzen danean, mazi premiñarik ez dagola

MAZIA.— Hondarribian APASTA.

Itxasoan arraina erakarri edo inguratzeko erabilten dan gaikia Era askotakoa erabilten da Askotan beste arrain merkeak txikitu, zeetu eta uretara jaurtiaz, arratña egon leiken tokian zabaltzen da

Antxoa gaztuagaz fileteak egitean, areri kentzen jakon azal, azur eta abar be oso onak izaten dira, baiña onelako mazi askorik ez da egiten.

Len mazi ona Ipar aldeko lurraldetatik ekarten zan. Makallau arrantza aukeran euken errietatik. Eta "mazi barrillak" deitzen zirantetan ekarten zan. Barrilla edo upel oneik 178/180 kilo ingurukoak izaten ziren. Euretari etorten ziran, gatz emonda, makallau urdail, este eta abar.

Arrantzaleak iru motatan banatzen eben mazia:

O n a
zazkarra,
birriña

Onein artean be beriztasun batzuk egiten dira.

Astobitza deitzen dautse bateri, arraiña ondolik atara eragiteko.

Primerakua, besteari, txaloparen ingumra arraiña ekarri erazteko.

Extra, arraiña batzeko.

Mazi zazkarra, txitxano eta beste arrain merkeak zatitu eta gertutakoa izaten da.

Birriña.— Mazi onagaz loditzeko gertuten dana izaten da.

Egon zan beste mazi mota bat: turtubia. Kakauetaren umna zan.

Sardiñak zoratuta lagaten zitun. Gertu egin bear izaten zan itxasora jaurti aurretik. Lenengotan, ondo erabilten ez ebelako, arraiña tripak etenda artzen zan, eta kaltegarri zala ta abar naste ugari egon zan. Orrelako mazia ez zan sekula txitxarrota erabilten, txitxarroa merkeegia zalako. Sardiñatan bakarrik erabilten zan, 1920'tik 1930 bitartean sardiñak dim apurra lagaten ebalako.

Gaztetxuak izaten ziran mazia barrilletatik atara eta ebagiten ebenak.

Azpikoz gora tiña txiki bat ipiñi, kañubeta bat eskuan artu, bertan jarri aurrean masibarril txiki bat utsik, gaiñean ol zabal bat eukala bertan arbiak euki eta txikitu ala mazia bertara jaurtiteko. Ta orrela txalopara, an bear zan tokian zabaltzeko.

MENGEL-MENGEL.

Argal eta bigun.

MENDAROTIK ARUNTZ GAUZA ANDIAK.

Burlaz esaten da, beti be gauza andiak erbestean gertatu dirala edo dagozala esaten danean.

MENDEBALEKO GIZONA, EURITAN JAIO TA EURITAN DOANA.

Zorion barik bizi danagaitik esaten da.

MENDEBALA EURITAN, BERROGETA ZORTZI ORDU BUSTITAN.

Mendebalak bereak dauzala esaten da berrogei ta zortzi ordu.

MERENGEZKO ODOLA DAUKA ORREK.

Odol meia daukenakaitik. Bildurta ta ikaratiekaitik.

MIELGA EKARRI DOGU. MIELGA JAIO DA.

Neska jaioten danean, mielga jaio dala esaten dakie Ondarroan.

MISERIAN BIZITEA EZ DA LOTSAGARRI.

Pobre izateak lotsarik ez daukala.

**MISERIXAN BIZI DANAK, PURGATORIXUA
LLIRREAN PASA DAU.**

Beartsuak naiko sufridu dauala esan nairik,
gero be geiago jazan bearrik barik.

**MONGOLIÑO TA PONGOLIÑO BETI ERRETA,
MAÑETAN.**

Mongoliño ta Pongoliño eta antzerakuak,
ume argal, koitadu, erdi-gaixoekaitik erabil-
ten diran berbak dira.

Mongoliñoak, Ondarroan, bestetan magurio
deitzen diranak dira.

Edo ta karrakelak. Hondarribian, Anton Girgi-
llo.

MOKOLOI EDERRA EGIN DOZU!

Anka sartze ederra egin dozu! lez. Edo ta
zikinkerien bat egin dauala adierazteko.

MOKOLOIZ BETETA.

Tintaz beteta. Zikiñez beteta.

MULU TA LIÑU, LIÑU TA MULU, DANA GORUTAKU.

Liñua eta mulua, gorutako gauzak dirala.

MUNDILLAK DINDILIZKA DABIL BETI ORI.

Bularrak lotu barik dabiltzan emakumeekaitik
esaten da.

MUNDILLAK, ZENBAT ETA GEIAGO OBETO.

Mundillak, aparitxuen mugarriztat ipinten dira
itxasoetan. Beste tokietan tuntuizak be dei-
tzen dautse. Boya txikiak.

MUTIL ONDO GURA, SOPAK JAN ETA LOGURA.

Ondo bizi danak, sopak jan da be lo nasai
egiten dauala.

**MUTRIKU TXABILLU ERRI BERU, KATILLU BETE
SALDA BERU.**

Mutriku eta Ondarru'k alkarri zirika eta tirrika
kantaten dautsen esaera.

MUTRIKU ETA ONDARRU, IDIAK IDIA ARKITU.

Sarri asarre ibiltzen dirala adieraziz.

MUTXARRIAK BAIÑO ARI MEIAGO.

Mutxarria, odol bakoa dala esaten da. Ori-
gaitik ari-meia, bizi gitxikoari esaten jako.

MUTXARRIAK BAINO ODOL GITXIAGO.

Ezegaitik kezkatu edo miñik artzen ez daua-nagaitik.

MUXARRA ALBAKO ARRAINA.

Arrain au egun sentiagaz asten dalako ager-tzen.

MUXARRAK GABEAN EDO ALBAN.

Muxarra arrantzateko unerik egokian gaua edo goiz-lena dirala.


Ondarroan muxarrari sarbaista be deitzen dautse.

MIOTU MAINA DAUKA SAGARDUAK.

Garrazkeria euki.

MATSOPETA ESKUAN DAUKAT GERO, TOLLANEN BILLA IBILLI ZABIZ.

Bat besteren bat zemaitzen dabillanean, bil-durra sartzeko erantzuten da. Matsopeta, beste batzuk mataputxeta deitzen dabe. Txa-lopetan arraiñak ilteko erabilten dan ol zatia da.



NAI BA DOZU JAN, EGIN LAN.

Lana bearrezko dala janariak lortzeko.

**NAI TA NAIKO NEUKE, BALIZ ETA BA ZAN EGAZ
JOKATUKO LEUKE.**

Bardin samar esan gura dabela adierazi nairik.

NAUSI ASKO DIRAN TXALUPAN, ALPERRENA NAUSI.

Jaube asko dagozan txalopan, alperrenak agintzen dauala.

NEGU GOGORRA, ANDRATAKO NEGUA.

Negu gogorretan, itxasoratze gitxi ta etxean egote asko gertaten dala, familiak ugaritzeko egoera.

NEGUAN OTZ ETA UDARAN BERO, MUNDUA SORTU ZANETIK GERO.

Urteko aro bakoitzak berea agertzen dauala urtero.

**NESKAZARRAK ETXEKOAK BAIÑO ITXASOKOAK
ESTIMAZIÑO GEIAGO.**

Neskazarra beste toki batzutan burriua, kurrukurrua edo arrain gorria deitzen dan arraiña da, itxas pekoa, eta jateko ona.

**NEURRITIK ATARATEN DANA, EDOZER BE, GALDU
EGITEN DA.**


Gauzak bere neurrian bear dirala adierazteko.

NI TA NI TA NI ITXASO BETEKO GALERNI.

Pertsona bat, beretarra danean, naste asko sortzen dauana izaten dala.

NI NAZ NI TA ZUEK JARRAI NIRI

Arro eta barekoiagaitik esaten da.



O MUTIL TONTO, JATEKO PRONTO!

Jan da jateko dagon mutillagaitik esaten da.
OBILDU EZKERO ONDO, NASTERIK EZ.

Aparixuak eta sokak ondo batu ezkeru, gero
nasterik ez dala sortzen.

ODOL TXARRAGAZ ODOLOSTE TXARRA.

Odolosteak be, onak egiteko, odol ona bear
dauala.

ODOLEKUA ZEIN DAN ITANDU AMARI, EZ AITARI.

Nor dan seme jator amak dakila ondoen.

**OGI TROKUA ESPANETAN ETA KANDELAK ZUDU-
RREAN, ARIMA PIELAK BA DAKIE LAGUNTZEN
PREMINA DANEAN.**

Pertsona tentel eta nagia izanarren, norbai-
tek ba dakiala laguntzen.

**OILLO KAKAZ ESPANIK EZ BALTZITU, URTEAK
BEREZ GIZONDUKO ZAITU.**

Bizarrak urteteko prisarik ez dala bear eta
ezer ez dala egin bear, berez urtengo daua-
lako. Batzuk esaten dakie, oillo kaka ona
izaten dala, beragaz espan gaiñeak igortzi
eta biboteak baltzitzen igarteko.

**OILLO KAKAK, ONDO IGORTZITA BE KAKA AU-
TSAK.**

Oillo kaka, edozar eukita be, beti dala kaka.

**OILLOA TA OILLANDA, KALETARRENTZAT PLIRRA
PURRA.**

Kaletarrak ez dakila egaztirik bereizten.

OKERRETAKO PAELA.

Paelak deitzen dautse bateletan beia bardin-
tzeko ipinten diran olei. Erderazko panelak.
Okerretako paela deitzen dautse beti bestei
jaramonik barik euren erara dabiltzanei.

OLAGARRUAK AMARRATZARI, EA ESAN, ZELAN DEITZEN DAUTSUE EA'N?

Ondarroan olagarrua eta Ea'n amarratza deitzen dautselako.

OLAN ETA OLANIK, BARDIN EZ BA DIRA BE, EZ DIRA EZBARDIN.

Itz bi orreik, bardiñak ez ba dira be, bardin-tsu esan nai dabela.

OLATU BARE BAREA, OLATU ANDIAREN ASIERA.

Umien soka-jokoan erabilten da esaera ori, neskak batetik bestera saltoka diarduen artean.

OLATU BAKARRIK EZ DAGO.

Olatuak alkar jagi eta bultzatuten dabela adierazteko.

OLATU ETA BAGAK BATA BESTEEN ATZEAN.

Olatuak bata bestearen atzetik etorten dirala.

OLEZKO POPIA.

Orrelaxe deitzen dautse sare-konpontzailleak, beian gaiñean jarteko ipinten daben olezko "ipurdiari".

OLEZKO POPIA DAUKA NESKA ORREK.

Ikutu egiñarren zirkiñik egiten ez daben neskatillagaitik esaten da.

OLEZKO OINETAKUAK LAKORIK EZ AINKAK BERO IBILTEKO.

Arrantzaleak oiturazko dabe olezko oiñetaku edo "traskoak" erabiltea.

Itxasoan dabiltzanean beti erabilten dituen lez, eta iñoiz itto be bai eurekin, origaitik esaera lez erabilten da beste au.

OLEZKO TRASKU TA GUZTI JOANGO DA ORI ZERURA.

OLGETAN ASI ETA BENETAN AMAITU.

Jolasean asi eta gero asarretuta amaitzen danean.

ON EI ZAN GIZONA ANTXINETAN, ORAIN DON.

Antxiña gizona ona zala ta orain (don) arrua. Bai eta len abadeei on deitu eta orain don deitzen dautselako.

ONDARRU TA MUTRIKU, IDIAK IDIA ARKITU.

Erri biak sarri asarre diralako.

ONDARRU, ERRI BERU. (Erri beroa)

Jende gogorra dagolako bertan.

ONDARRU TXABILLU ERRE BERU, KATILLU BETE SALDA BERU.

Mutrikuarra ondarrutanei esaten dakien destaiña.

ONDAMENDIAK IL EZ TA ONDASUNAK GRAK.

Zoritxarrean il ez eta ondasunak lunera eroan.

ONDARRUTARRAK EZAGUN IZANGO DIRA JOSAFATEKO ZELAIAN.

ONDARRUTARRAK, JOSAFATEKO ZELAIAN, DANAK ALKARREN ONDUAN.

ONDARRUTARRAK, JOSAFATEKO ZELAIAN, ALBOKO ORMAREN ARRIMUAN.

Esaera oneik azalpen au dauke. Luzaroan, ondarrutarrak, beti pobreak izan, eta il ondo-
ren, jantzi barik sartzen zituen il-kutxan,
aurrea bakarrik estalduta. Origaitik diñue
orain, Josafateko zelaian, "popabistan" lotsa-
tuta egongo dirala, azken juizioko egunean.

ONDO EGINAREN PAGUA, ATE ONDUAN PALUA.

Ondo egiñak esker txarra eukiten dauala.

ONDUA JO.

Arrantzaleak /7 esan orde be erabilten dabe.

ONDUA JOATEARI, IL; ONDORA JOATEARI, ITTO. KOSTAN KOSTAKO LEZ BERBA EGIN ETA KITTO.

Toki bakoitzean bertan ulertzeko eran berba
egin bear dalako.

ONEGIK GALDU EI EBAN "OBE" ETA BIURTU POBRE.

Obe ontasun ezaugarri zalakoan, onegiak
beratu ebala, indarra kendu eutsala.

ONGILLEARI, ZENBAT ETA GEIAGO EMON, GEIAGO ESKATU.

Eskalea ez dalako asetzen eskean.

ONGILLEARI GAUR OMEN, BIAR ZEKEN.

Ongilleari, al dabenean emon, omen egiten
jakola, baiña ezin dabenean, sinistu ez eta
zekentzat artu.

OR DATOR LAZARO, BARRAN SARTU ORDUKO
TXIPARRA DARIO.

Portura sartzen asi orduko, bapora uztuten
asten dalako.

OOLDIAK.

Itxas bazterrean, aitz, arritza eta inguruetan
agertzen diran itxas belarkiak.

Azkue'k, bere iztegian, ooldi deitzen dautse.

Toki batzutan *gooldi*. Bai eta *gorbel*.

Hondarribian *alaka* deitzen dautse zee-zee-
ari. Eta itxas ertzeko arritza txiki nai egaletan
asten dan belar-fiña lakoari, *lima*.

Ondarroa'n, azken oneri, berdiña. Mota au
labana da, eta batzuk etxean baiñu artzen
erabilten dabe soñaren labangarritzat.

Itxas sakonetan bereizkuntza asko egin lei-
kezanak ezagutzen dira. Udazkenean. Itxas
andien ondoren, itxas ondoetatik eten eta
ataratako moltso galantak agertzen dira itxas
ertzean, eta batu egiten dira, eta saldu, batez
be osagaikietarako.

Mota asko egonarren, ba dirudi euskeran
deitura orokorrak bakarrik erabilten dirala,
bakoitzaren izateari begiratu barik.

Ala itxas-orbel, itxas bedar, sabui bedar,
kosta bedar eta abarregaz ezagutzen doguz
osotasun baten. Eta toki batzutan alga erdal
berba erabiliaz.

ORAINDIK GATZAREN ARDLIRA ARTU BAKUA.

Egin bako gizona. Ikasi bakua

ORRA LAGUN ON BI, MATRALLUA ETA ULTZIA.

Beti alkarregaz batzen diralako.

ORRATZA APURTUTA.

Algaretean, nun dabillan eztakiala.

ORRATZA GALDUTA.

Moskortuta. Nun dabillan eztakiala.

ORRATZA.— ORI ARRAINA BA LITZ, ORRATZA.

Gizon zirikalari eta zoliekaitik esaten da.

ORRUKA TA OJUKA GOIZEAN, NEGAR ULUKA
GABEAN, EGUNEROKO KANTUA ITXAS ERTZEAN.

Itxasertzean goizean alai ibiliarren, gaberako
sarri gertatu izan dalako ondamendien bat.

**ORTUAN PEREJILLA, SALERUEN GATZA, ATARA
PLATERERA, JAN DAIGUN LEBATZA.**

Umetako kantua.

OSASUNA TA ONDASUNA TA EMON NAI DOZUNA.

Eskabidea egiteko borondatea agertuaz.

**OSASUNA ETA MISERIA ITXASOAK ETA ABADAEK
PAZIENTZIA.**

Itxasotik ezer ez eta abadeak beti pazientzi
eske.

**OSASUNAK EZ DAU BEAR MEDIKURIX, MISERIAK
BE EZ KONTSEJURIK.**

Gauzak datozen lez artu bear diralako.

OTOIO BA DAUKOK ODOLIK?

Ekaitzetan, itxasoan estu ikustean eta Otoio
mendia geldi, lekeitianak erabilten aben
esaera da orí, Otoio eurekin ain ardurabako
ikustean. Esaera da bein leorrera ezin elduta
ibili zan agure bat, etxera baiño len Otoio'ra
joan zala, kañubeta bat sartu bere gibelean,
eta amormz dei orí egin eutsala berak ain
etxeko eban Otoio mendiari.

OTSAILLEAN KATUAK BE ARRAIN ESKEAN.

Otsaillean, arraiñik egoten ez danez, katuak
be arrain gose ezagutzen dirala

OTSAILLEAN OTZAKIL EZ DANAGAZ, KONTUZ.

Odol berokoekatik esaten da

OZKIL ORI IBILI DA GAUR BE LAPURRETAN.

Begiz jotako bat, bere gaizkerietan dabilla-
nean, esaten da.

OBAKUA.

Joko bat.

ODEI TXARAMELAK.

Euri odeiak.

ODEI BURDUNTZIAK:

Euria ekarten daben odei estu ta luzeak.

OGI-OGI LAKORIK EZ DAGO.

Ogi-ogi, labamiñez erabili ta jaso bako ogi-
ñaren zatia.

ONDAR-AZPIKOAK IKUTU TA ZOLITU.

Ondar-azpikoaren ikutua zolia izaten da.
Ondar-azpiko = trakino.

ONDARRU LAKO IXKIRAK: ONDARROLAK.

Kiskilloi andiak.

ONDARTZAKO BAIZADIA

Baizadi = arbidea

OREKARIRIK ONENA, MISERIA.

Danak miseriak jotakoak danak bardin.

OSIGORENEZ BETETA EZTARRIA.

Paperekin beteta

**ORRUKA DABIL ITXASOA. ZEINEGAZ ASARRETU
ETE DA?**

Ondamendien baten kezka.

OTANTI.— ZUK DAUKAZU OTANTI, ZUK.

Arpegi andi, deitzeko.

ORRATZAK

Sareak josi ta konpontzeko oiturazko diran orratzak.

ARMATEKU

Sareak osotasun baten gertuten joateko.

BELA ORRATZA.

Belakiak josteko erabilten dana

BIETZ ORRATZA.

Be aldeak josteko erabilten dana

GALTZETORRATZA.

GOIBURUKO.

Sarearen goi-bumak josten erabilten dana.

JOSTORRATZA

Ainbat neurritakoak

MAMIÑEKU.

Sare mamiñak konpontzen erabilten dana.

ORRATZA.

Izen edo deitura orokorra.

SARE ORRATZA

Saretan bereziki erabilten dana'

Sare konponketan erabilten diran orratzak, **OLEZKO
ORRATZAK** deitzen dira.

ORRATZAK

ITXAS ORRATZA = KONPASA.

Ondarmko arrantzalien berbetan, itxas orra-
tzeko giroak, era onetara esaten dira:

NORTE.— Kanpo.
N.E.= Iparra
ESTE = Mendesta.
S.E. = Errekaixi.
S. = Egu
S.O. Galgoi
O. = Mendebala

OLATUAK ETA INGURUA.

OLATU AUZIA

Olatu apurtua, jo ta ausi dabilianean.

BARRARIK BARRA.

Olatu arrotua esaten dana. Zabal etorri eta itxas mugari, barrari, gaiñezka ibiltan danean.

BIRAZOIA

Aize nastetsukin dabillan olatua.

OLATUAK PLASTAKA.

Goikoaren antzeko.

ERLAIZEAK.

Itxasoan olatu txiki baiña biziak dabiltzanean.

OLATU GAIÑA.

Olatuen gaiñaldia.

KARDALA

Itxasoan urmn eteten asi ta olatuen sortzea aasten dan ingurua.

ONDAR OLATU

Ondartzetan bat-batean sortu ta apurtzen dan olatua.

OLATU ZIRIÑAK.

Txipli txaplaka dabiltzan ur azaleko olatuak.

OLATU SAKONAK.

Bagak. Barmko erasoaldiz sortzen diranak.

OLATU ZAKARRAK.

Ermki barik gogor eta gordin jotan dabeanean.

OLASTAK.


Olatu txikiak, bigunak.

OLATUAREN ERREBONBI.

Olatuak itxasertzean irakiten lagaten daben
ur egoera.

ARDI ZURIAK.

Itxasoaa olatu txiki zuriz beteten danean.



PALAZ EDO ESKUZ, DABILLENA BETI JOKUN.

Batera nai bestera, dabillena beti dabillala
jokoan.

**PALO GANEKO, PALO GANEKO PUNTARAN, AN
DAGO KARMEN LUTOZ BETETAKO PANUELO IZA-
RAK BORDATEN.**

Umetako kanta.

PAPARDUAK LEZ, AN ZAREALAKUAN EMEN.

Arrain ibiltaria dala esaten da papardua. Toki
batzuetan lanpua be deitzen dautse edo
papalardua. Erderaz palometa, japuta eta
castañola.

**PAPERAK AU TA BESTIA, PLATERA BETI BETIA,
ORTXE DAGO EGIA.**

Bata esan nai bestea, mai betean igarten da-
la egia.

**PATER NOSTER DIRUA LASTER,
KALERA LASTER
ZERURA LASTER.**

Abadeen illetako otoitzekaitik esaten da.

PATROI MAKALAK AITZAKI TA ESANALAK.

Patroi makalak beti daukala aitzakiren bat.

PATROI ONAK ERRAMULARI FALTARIK EZ.

Patroi onak laster billatzen dituala txalopara-
ko lagunak.

PATXI PITXI, SALDA ASKO TA OKELA GITXI.

Jaten makal emoten daben tabernariagaitik.

PELOTARIRIK ONENAK KORRETAKUAK.

Korreta deitzen jako Ondarroa'ko eleizako
inguruari. An goian plazara begira egoten
dira "korretako pelotariak", a egin bear litza-
kela, besteraa jokatu bear zala aitzakitzen.
Origaitik, jokolaririk onenak, begiraleak.
Baiña ba dago beste adierazpen bat be.

Korretan, eleizaren orma artetan, pelotan egiten da eta koska eta tarte betetako aretan sortzen dirala, esaten da, pelotaririk onenak.

PIN PIN PIN SERA SERAPIN, AKILLAN GORA DA MARTIN.

Umetako kanta.

PLA EGINDA DATOR.

Busti-bustita dator, esateko.

PLA EGINDAKO ANTZOAK LAKO ARRAIÑIK EZ DAGO.

Pla eginda, deitzen dautse arraiña zabaldu, ta arrautzatan inguruatari, ta brixiduari.

PLATUSAK LAKO ZIRIÑA EGIN EBAN AMAK GURE TXIKIÑA.

Ume ziriñakaitik esaten da.

Platuxa edo platusa, Txabalo lez ezagutzen da Ipar Euskadin.

Erderaz solla, platija, platusa. Arrain ziriña dala esaten da.

POBRE BIZI DANA ABERATS ILTEN DA.

Birtutez beterik ilten dalako.

POBRI ZERUKO LORI, ABERATSA INPERNUKO LEBATZA.

Umetako kantua.

PONGOLAK! ZEURE PONGOLAK!

Zure arrautzak, edo zure koskabiluak, ez esatearren.

PONGOLINO AU SEKULA EZ DA ASIKO.

Ume negarti eta mengelakaitik esaten da.

POPA ARTE INKATA.

Moskor-moskor eginda.

POPAKOIXUA JAIO ZAN IZAN BE TOXU.

Popakoixua, kezkatu, urduri.

POPATIK ARTU, POPATIK EMON.

Atzetik artu edo emon, esateko.

POPAX IBILI.

Atzeraka ibili.

POTZORRI.

Gizon zorritsu. Bai eta ezetako ez dan gizona.

POPAKO TXINTXURRE BETI GOGOR.

Erramulari onagaitik esaten da.

baixa da. Lentoï tokia dala esaten da. Lentoia deitzen da Bizkaian. Beste tokietan Aligote. Itxaspean beian bizi dan arraiña da aitz eta ondarretan, moltsotan.

SAKRISTAUARI OILLOA TA ABADEARI OILLANDA, NOIZ JOKO DABE KANPAIAK GURE TXANDA?

Kanpai jote, bedeinkapen eta abarren orde, oitura ori egon zan erri askotan. Origaitik esaten eben besteak noiz izango zan euren txanda.

SAKRISTAUAK ABADEARI: KOROIA BIZARGINAK EGITEN DAU.

Abadeak euren buran koroia eroan bear izaten ebenekoa.

SALERUAN GATZA, JAN DAIGUN LEBATZA.

Esaera.

SALINETATIK ETORRIKO DA GURE ESKOLA MAIXUA,

AI SALIÑA, SALIÑA, SALIÑA, AI SALIÑA MAIXUA.

Ondarroan zagi dantza bateri ezarritako kanturako berbak.

Gaur "Saliña saliña" dantza ondarrutar tipikotzat erakusten da. Oiturea zan len San Pedro txiki egunez dantzatutea, arrantzaleak atunetara Santoña aldera joaten ziranean, euren agurreko jaia ospatuaz.

SAN JUAN, NEKEZ ETORRI TA ARIN JUAN.

SAN JUAN SAN JUAN SAN JUAN BAUTISTA, ZELEBRATU DAIGUN GAUR BERE FIESTA.

Kantua.

SAN PEDRO GIZONAK ARDAUA EDATEKO.

Arrantzalien jaia zan eta andikiro ospatuten zan.

SANTIAGO, GIZONAK BAIÑO ANDRAK ORDIAGO.

Santiago, arrantzaleak Santander aldean ibiltzen ziran, eta Ondarroan Santa Klara ermitaren inguruan ospatuten zan egun guztiko jaia. Eta, jakiña, egun orretan andrak ospatuko eben jaia.

SAN ROKE, EDANGO LEUKE NOK EMON BALEU-KE.

Iru esaera onek, kantu antzera alkarren atzetik esaten dira.

Batzuk ba leuke, esaten dabe. Besteak ba neuke. Batera nai bestera bietara dator ondo.

SAN GREGORIOTAN, ANTXOA BERE SASOI ONEAN.

San Gregorio Maiatzean gertaten da, ela antxoa sasoian.

SAN GREGORIOTAN BOTILLA BETE ORIO.

Oitura zan Berriatua'ko san Gergorio'ra botilla bete orio eroatea ango argi ontzirako, eta andik bertan egondako pixkat ekarri zaldarrak eta aragi igortziteko.

SAN JEOLIMO, ARAGIA PIPER ANDIXAKIN JATEKO.

San Jeolimo ermita, Ondarm ta Mutriku bitartean dago, eta oitura zan bere egunean, Iraila'ren 30'n, ara joan, txis egiten eban umerik familian ba egoan kandela bat eroanaz, eta gero inguruan sagasti edo zelaien baten, etxetik eroandako "aragixa piper andixakin" jatea.

SAN JERONIMO TXISATI.

Oe edo praketan txis egiten daben ume eta nausiak eroaten dira bere ermitara gaitz ori kentzea eskatzen.

SAN ESTEBANTXE, BETI LEN LETXE.

Gabonetako jan-edan larregiak amaitu ta lengora.

SAN TXILIBRISTO, BESIGUA ESPANETATIK DINDILIZKA.

Urtearen azken eguna izaten da egun au eta besigu sasoian gertatu.

SAN BLAS, DOMINISTIKUKA ITTO BEAR NAZ.

Doministiku deitzen dautsagu usin egiteari. Itxuraz len, orrelako bakoitzean Dominus tecum, esaten zan eta ortik geratu berba ori.

SAN RAMON, UME BAT NAI DOT ETA EGIN NIRI
JARAMON.

(San Ramon Nonnato'ri egiten jakon eskaria.)

SANTA BARBARA, SANTA KUTZ, JAUNA BALIA
ZAKIGUZ.

Tximista eta trumoiak igartean esaten da.

SANTA ANA, SAN JOAKIN'EK PAZIENTZIA GALDU
ERAGIN EUTSANA.

Senar-emazteen asarraldietan, andrak arpegi
emonaz, eta zemai lez, ba dakie esaten ori,
eurak be pazientzia galdu leikela adierazi
nairik.

SANTANDER, ABERATSAK ONDO TA POBREA
LANDER.

An be pobreak beste tokietan lez esateko.

SANTOÑA - AMERIKETA.

Ala deituten eutsen arrantzaleak inguru areri.
Bizkai aldekoak uda aldian ara joaten ziran
lengo denporetan, andik atuna arrantzaten
ibiltera, bestela joan etorrian egunak galdu
eta arraiña be galtzeko arriskuan eukiten
ebelako. Denporaldiko dirutza dana batera
ekarten eben, eta gero emen "partillak" (diru
banaketak) egitean, uste izaten eben Ameri-
ketan antxiñakoak aina diru irabazten ebela.
Ortik Santoña - Ameriketa deitura.

Orrez gaiñera inguruko txikiak len uste iza-
ten eben umeak Paris'tik ekarten zirala.
Emengo arrantzaleak bat jaioten zanean,
Santoña-Ameriketatik ekarri ebela esaten
eutsen euren seme-alabatxuei.

SANTOÑA AMERIKETARA, ZIMARROI ETA ATUNE-
TARA.

Esaera.

SANTU GUZTIETAN, DOMINU SANTURU SANTURU,
TURURU.

Santu guztiak be egun orretan jaietan ibiliko
dirala esateko.

SANTUAK AMENIAN EUKI.

Gauzak ondo urteten dabenean esaten da.

SAPALANEAN DABILLANA, BERA JAUSIKOA DA
LENEN.

Azpikerietan dabillana, laster jausiko dala.

SARDIÑA ZARRAN USAIÑA DAUKA ORREK.

Gizon koipetsuagaitik esaten da.

SARDOI ZARRA DA ORI.

Begi luzea. Bai eta maltzur lakoa be.

SARE ASKO BOTATAKO GIZONA.

Gizon langillea. Bai eta andra zalea be.

SARE MAMINAK BARRIZTUARREN, PAPUAK BE
ERRETA DAUKAZ.

Zatiak konponduarren, gerria be makal dau-
kan sareagaitik esaten da

SARRA-SARRA ANDIA DAGO KAIAN.

Ur geldi eziña, azpiko indarren bata-besteko
geldi eziña.

SARRASKIXO EDERRA EGINGO DAUTSU!

Artu bear dauana umore txarrez dagola.

Sarraskixo, sarreraki edo sarrerako berbatik
etorri lei.

SARTU URTENAK EGITERA NUA ELEIZARA.

Frantziskotarrak eukiten eben oneraspen
edo oitura bat.

SARTU URTENAK EGIN, BAINA AN ZAREALAKUAN
EMEN.

Bearrezko ikustaldiak egiteko, baiña arin.

SARRAMUSTADA-SARRAMUSTAA GAIÑEAN.

Txarto esatea geratu barik. Asarre agirian
eten barik.

SARRI EGINAGAITIK ITXASOAK ORRU, BAKEAN
ZAINDUKO DAU JESUSEK ONDARRU.

Abestia.

SATS, BIRRIN, POLBO.

Ezer barik geratu danagaitik esaten da.

SANTU EGIÑAGAITIK NORBERE BURUA, SANTU
OGI ZALEA EZ DA SEGURUA.

Ogiak eta diruak bat aldatu leikela agertze-
ko.

SANTU ITXURA ETA DIABRU EGITURA.

Hipokritakaitik esaten da.

SAZKIL-SAZKIL EGINGO ZAITLIT.

Txiki-txiki egingo zaitut esatearen antzera.

SERORENTZAKO BURUAK ETA ABADIENTZAKO EGATAK.

Abade etxetan be azurrak batentzat eta mamiña bestentzat egoten dirala.

SIDOL UTSA.

Sidol, ule-artzaille edo antzerako esateko.

SIKATU PLANA OUERIDA SANTA ANA, SIKATU PAPEL OUERIDO SAN MIGUEL.

SAN MIGEL, EUTSI NEURE BUSTIXE, EKARRI ZEURE SIKUE.

Eskoletan esaten gendun, tintaz mokoloia egitean.

SIRAZKO ERROPIA JANTZI ARDURA BARIK.

Eguraldi txarra datorrela adierazteko.

SORGINTZUTAN IBILTEN BAIÑO EZ DAKI.

Misterioz beteta ibilten dala sarri.

SORTZEKO KORTZEAGAZ IBILI.

Jaio zan lez ibiltea.

SUEZTA JANTZI BEARKO DA GAUR.

Euria datorrala.

SU BAKO ETXIA, MOTOR BAKO TXALOPIA.

Su ta indar barik, biak bardintsu dirala.

SUGEAK, ZAPOAK, OTSOAK ETA ZALDIAK ITXASOAN?

AMAIKA LANTZOI BA DABIL ONDARRU ALDEAN.

Itxasoan itxasokoak eta kitto.

SUIÑA NAUSI ETXIAN, ERRAIÑAREN DOTIA AIDIAN.

Suiñak agintzen ba dau, doteko diruak berak erabiliko dituala.

SUSURKONDAN, ESNATU BARIK.

Sursumcorda= gora biotzak da, baiña esatera onetan, konturatu barik aidean dabillena-gaitik esaten da ori.



SAN PEDRO ARRANTZALIA, LEKEITIOKUA
SAN PEDRO KATEDUNA, MENDIXAKUA.

Bata 29-VI kua da, eta bestea 1-VIII kua.)
Mendixakua San Pedro Ad Vincula deitzen
dana da.

SAN PEDRO TA SANTA KLARA,
MARINELAK GARA,
MARIÑELAK GARA
TA EZ GAIZUEZ LAGA.

(Ondarrutarren eskaria.)

SAN PEDRO'TIK SANTA CLARA'RA ATUNETAN
SANTOÑA'RA.

Lengo denporetan oiturazko zan denporaldi
ori ingum aretan igarotea, atuna andik uga-
riago ibiltzen zalako.

SAN PEDRO'TIK SANTA CLARA'RA ANDRA TA
UMIAK ERMITETARA.

(Gizonak Santoña aldera joaten ziranean,
oiturazko zan illuntzetan erriko ermitetan
errosarioa errezatea. Ori taldeka edo senitar-
tekoka, edo kalekoak alkartuta egiten eben).

SAN PEDRO GURIA EZ DA ITXASOKUA.

Mendexarren esaera.

SANTA CLARA. BIETA SANTA CLARA
EUSKERAZ ARGIA
ZEU ZARA ZERUETAN
DONTZELLA GARBIA.

(Santa Clara'ren koplekako lenenago
bertsoa.)

SAN SIMON ETA SAN JUDA NEGUA ELDU DA.

Egun au Urria'ren 28'an ospatuten da.

SAN SIMON ETA SAN JUDAETAN, ONTZIAK
ARLANKETAN.

Beste toki batzutan, ontziak ankoraetan, esa-
ten dabe.

SAN BIXENTE OTZA, NEGUAREN BIOTZA.

Neguan gertaten dalako.

SAN MEDERREZ, EURIA BERROGEI EGUNEZ.

SAN ANDRES, CÍOIZEAN AZILLEAN, ETA ARRA-
TSEAN EZ.

San Andres Azilla'ren 30'n izaten dalako.

SAN MARTIN ZEREKIN, SAN ROMAN AREKIN, SANTA KATALINA BERAREKIN.

Azillean gertaten dira iru jaiok.

SAN BARTOLOME, BURUA LODI ETA LEPUA ME.

Dagonilla'ren 24'an.

SAN JEOLIMO, NEGUA BA DATOR ETA ALLIMO.

Iraila'ren 30'an.

SAN PEDRO ZERUETAKO GILTZAREN JAUBEA, ZEURIA TXALOPIA, NEURIA SARIA.

Erdizbanan alkarregaz ibili gura dabela esateko.



TAKETAK EMON.

Burutapena euki.

TAKETETIK AIDEAN.

Burutik arin samar.

TAKIN TAKIN.

Noz-nai. Sarri-sarri.

**TALAIKERURIK ONENA, ANDRE ALARGUNA, BETI
ITXASOARI BEGIRA.**

Andre alargunak ezin kendu itxasoa begi
aurretik. Origaitik talaixeruak lez beti itxaso-
ri begira, esaten da.

TALAIERUA.

Begira.— Zaindari.

Deika.— Arrantzaliei deika.

Keika.— Sua aegin eta keia agertzen.

Gogoan euki bearreko da atalieruak itxasoan
arraña ikusten abenean, keia aegiten dabela
bere talai txabola inguruan eta alderdi baten
edo bestean egin, arrantzaleak konturatzen
dira talaieruak arraina zein aldetan igarri
daben, bereala bertaratzeko.

Ondarroa'n senar batzuk talaierua deitzen
dautse emazteari, eurak zaintzen ibiltzen da-
la-ta.

TANGATIK JOTA.

Txiseko gaixoagaz.

TANGI JO.

Izorratu.

TANTZA ONAK LORO BIGUNA ESKATZEN DAU.

Tantzak aparixuetan ipinten diran zurdak iza-
ten dira, eta loroari lotzen dira.

TANTZAK KOBRORIK EMON EZINDA.

Tantza bigunegiak edo arrain andiegiak ger-
tatu eta aparixuak sarri eteten diranean.

TANTZA FIÑA DA ORI.

Gizon jatorra dala.

TANTZA MEIA.

Gaixoa dala.

TANTZAIA ERREZ ETETEN JAKONA.

Era guztietan motza, bildurti edo antzerakoa.

TARTAIÑUA EUKI.

Ikarea euki. Edariaren ondoren batzutan.

TEN ANDIKO GIZONA.

Gizon osoa.

TENIK EZIK EZIN LORTU.

Eske ibili ezik ezin lortu.

TENTUNETIK URTENDA.

Beretik urtenda.

TENTUN BATEKOA.

Beti bardintsu agertu eta ibiltzen dana.

TENTUNERA EKARRI.

Bere izatera ekarri, gaixo ondoren.

TERESA TERESA, ESNIA EDATERA, SANTA KUTZ
MENDIKO ZELAIRA.

Umetako kanta.

TERRALARENTZAKO KAPARIK ONENA, KAMAÑA
AZPIA.

Barruko aizearentzako aterperik onena,
kamaña azpian sartzea dala.

TILIN TILIN ZEIN IL DE, PERU ZAPATARIXE, ZER
EIN DAU? PEKATU, AUZOKO TXAKURRA URKATU.
ORI EZ DA PEKATU, URRENGORAKO PARKATU.

Umetako kantua.

TOLETA BAIÑO ZUZENAGO.

Toleta, erramua estrapuagaz lotzeko karek
gaiñean egoten dan taketa izaten da.

TOLLANAK ARTU.

Paliza bat artu. Antxiña, tola arrantzaten
zanean, molla gaiñera atara eta jo egiten
eben makillekin, biguntzeko. Txalopan bertan
be bai bestetan. Origaitik esaten da tollanak
artu, au da, makillakadak artu.

TOLLANAK EMON.

Lo.

**TOLLANAK EMON EUTSEZAN ABADearI,
ABADEAK KRISTONAK EMON EUTSAZALAKO SA-
KRISTAUARI.**

Abadeari makillakadak emon eutsazala,
berak sakristauari emondakoen ordeZ.

TONK EGIN.

Ezin gaiagotan geratu.

TOSTAK.

Lengo txalopa andi eta treiñeruetan aurretik
atzera egoten ziran egurrezko jarrilekuei, tos-
tak deitzen eutsen. Ez dautsez danei izen
bardiñak emoten.

Aurretik atzera, tostak izen oneik daukez
Ondarroan. Ba dago aldakuntza deituretan
erri batetik bestera.

Aurre

Kontrailla

Kontraburu

Espalda

Kontraespalda

Sagaitoki

Tanbuleta

Bernilela.

Masteta.

Treinleku.

Ankako tostartea.

**TOSTA GAIÑEAN POPAKO TXINTXURRAK URTE
ARTE IBILTEN DA ERRAMULARIA.**

Ipurdian zaldarrak urten-arte ekiten dautsala.

TRASKUK ARTE INKATA.

Moskor-moskor eginda.

TRUXUKA NEGARREZ.

Malkoz beteta negarrez.

**TXALOPA ANDIXE ZIXE ZIXE, AITAK DAKAR BIZAR
ANDIXE.**

Portu aurrean txalopa andiak agertzean,
umeak orrelako kantutan ibiltzen ziran.

TXURRU-TXURRU EURIXE, EUKI JAUNA MISERIKORDIXE.

Esaera.

TXURRU-MUTXUKA.

Alkarri loxintza egiten.

TXANTXALA PIKOMONTE, TXANTXALA PIKOTE,
MAMOGARRA, KRISTINAU... BELAUNIKO EGOTEN,
BELAUNIKO EGOTEN,
ETZINDE EGOTEN
TENTE EGOTEN...

(Ume joko eta kantua)


Erdian jarrita batek eroaten dau kantaren zuzenbidea, eta besteei belauniko, etzanda edo tente egotea agindu, kantatuaz batera berbak agintzen daben eran.

TANGARTA TA LANBASIK BARIK EZIN LEI BATELEAN IBILI.

(Tangarta: olezko ur batzaillea, bateleren azpi aldeko oker unetatik ura atarateko. Lanbasa, egurrezko makila punta baten eun zatiak lotuta, ura legortzeko erabilten dan tresna.

TXILIN TXILINEKO ILLETA.

Ume edo iñuzenteen illeta, kanpai andi barik, txiliña joaz egiten dalako.



UGARIARI, DIRUA TA OSASUNA KANTARI.

Aberatsari diru eta osasunik ez jakola falta.

UGARIXUAK KANTARI, ARGIA INDARRA EMOTEN
DATOR EGUNARI.

Igelak kantuz diranean, eguna laster dala.

UGELIK EZ DAU BEAR MARIÑELAK, LAPAK JATE-
KO EGUNA DABENEAN.

Ugari jan nai izaten dauzala adierazteko.

UGELEAN BE EZ EGOAN ARENTZAKO ZULORIK.

Gizon lodia adierazi nairik.

UKA ASKO MANU'K BESTIEI GUZURKA, BAINA
LAGUNAK BETI BERE AURKA.

Berak ukatuarren, lagunak be bere aurka
autortzen ebela.

UKABILKA EGINARREN ITXASOARI, ITXASOAK DAR
DAR MARIÑELARI.

Alperrik dirala arrantzialien zemaiax itxaso
asarre danetan.

UKONDUA LUZATU TA MOSKORRA BATU, PATXI
GUREA TABERNAN EZIN SARTU.

Sarri moskortzen danagaitik.

UME ASKOK, AO ASKO.

Askori jaten emon bear.

UME ASKO TA LO GITXI, ANDREN KURUTZI.

Andren bizi garratza adierazi nairik.

UR MEIETAN GALTZEN DANA UR ANDIETAN ITTO.

Ur meietan estu ibiltzen dana, itxasoan laster
galtzen dala.

URA ZAN GIZONA URA... TA ITXASUAN GALDU
EBAN ITXURA.

Gizon andi izanarren, itxasoak gaindu ebala.

UR ILLETAN, TXALUPAK ANDIAGO ERREKAREN
BIDEAN.

Ur gitxi dagonean txalopak andiago iruditzen
dirala.

URAK ZIRRI-MARRAN, ERREKAKO BASAK DAN-TZAN.

Uretako zirri-zarreak, itxas ondoko gorabera adierazten dau.

UR oiñarri dala osotu eta erabilten diran berbak.

UARRE

Urioletako ur zikin.

UATS

Baporea.

UBAROI

Itxas sakoneko.

UBERA

Itxas bide antzekoa, estela.

UBIL

Likidoa.

UGARTE

Irla.

UGOIBE

Mare goi ta beko.

UGOLKO

Baixa. Bahía.

UJOLA

Ur korrenta.

URANDI

Ur goi, alta mar.

UR BERO

Ur beroa.

UR BIZI

Ur andi. Mare bizi.

UR EPEL

Giro epeleko ura.

UR ERRE

Sargoreko ura.

UR ESKIÑA

Ur egala

UR GAZI.

Kresala

UR berba oiñarri dala...

UR GEZA.

Edateko ura.

UR GOZO

Edateko ura.

UR GORA

Mare goia. Pleamar.

UR BERA

Mare beia. Bajamar.

UR IL.

Ur illak. Marea illak.

UR IRAKIN.

Ur bero, larri.

UR LAIÑO.

Uretatik sortzen dan laiñoa.

UR MEI.

Sakontasun gitxiko urak.

Ur meietan ibili, sakonune gitxiko uretan
arrantzatu.

UR OTZ

Ur otza.

URLAIXE

Eres-urllaixe = remanso de agua.

itxas **URE.**

Itxasoko ura.

METAL URE.

Burdin lurretako ura.

URANDIKO TXIRLAK, BETI BE LEORREAN.

Itxasoan aberastuak, leorrean bizi nai izaten
dabelako.

**URANDIKO ARRAIÑA ZALAKUAN, BATELEAN BE
MARIATU SARTUAZ BATIAN.**

Gizon gogorra zalakoan, batelerako be baliatu ez.

**URAK GUZTIAK AGORTU DIRA, ARRAIN GAIXUAK
AGIRI, AURTENGO URTIAN GURE MUTILLAK NON
EGINGO DABE IGARI?**

Umetako kanta.

**UR TXAKURRAK— ONDARROAN TXAKURRAK BE
ARRANTZALIAK.**

Lengo denporetan txalopetan txakurrak erabilten zituen, trein eta sareen txikotak txalo-

para eroateko uretatik, gizonei lan asko aurreratuaz. Amuetatik askatu eta uretara jausten ziran arraiñak be, eurak jasoten zituen, eta arrain orrei dirua aparte gordetzen zan, "txakurrana" deitureagaz. Txakur oneik ur-txakur mota berezia ziran. Uletsuak.

ORIK EZ ITXASOAN, ALA ESAN EBEN LARRUSKAIN'EN, ETA SINISTU EI EBEN ANGOAK, URARENAK ORDEZ ARDAUZKOAK ZIRAN EUREN TRAGOAK.

Moskor jardunak agertu nairik.

URIK KARUENA URIOL URA, BEREZ ETORRI ETA DANA DARUA.

Uriolen kalteak emoten daben lorra adierazteko.

URRABURU, ORI BE JAUSI DA MOLLABURUN.

Urraburu, gizon aberatsa izanarren, a be laban eginda jausi.

URRABURU BAINO DOTOREAGO.

Urraburua arrain apaiña da. Eta a baiño apaiñago.

UR-SUGEAK IKUTU, ARAGIA ZOLITU.

Dragoiak ikututen dauan aragia, zolitu egiten dala.

URREA EZ DA JAUNGOIKOA, BAINA BETI DAGO URREAN ETA URREAN BE BAI.

Juangoikoa urre izan ezanarren, toki guztietan eta nun nai dagola.

URRUN NAI TA BE, JAINKOA BETI URREAN.

Nai eta ikusi nai ez, Jaungoikoa ba dagola alboan.

URTA TA URRABURUA DABILTZAN TOKIAN, MURTXILOIRIK EZ INGURUAN.

(Urta = putxanoa eta urraburua uretan ibiltzen dira.

URTA BASATZETAN SARTUTA LAPURKA.

Urta (putxanoak) basatzetan sartzen dalako lapurretarako.)

USAINIK ONENA ARTZEN EZ DANA.

Artzen dan usaiñak atsa euki edo beste zerbait leikelako.

UT ORTIK, ARRAINAK MARINELARI.

Jan nai ezik dabillanean esaten da.

UTXA LAPIKOA APURTUTA, LAPUR TXIKIAK MUSTURKA.

Utxa lapikoa apurtuta ikusten ba da, diru-txuak artzeko zirikaldien bat egon danaren ezaugarria.

UTXA LAPIKO BARRIA AMAREN SAKELAN UZTU-GARRIA.

Utxa lapiloa, askotan amak beteten dabela-ko, umeen ordeztu.

UTZ ALA BETE.

Itsu-itsuan jotzen ibili.

UTZ ALA BETE, ERREMUAK BETI BEAR ESTRAPU ETA TOLETE.

Itxasora joan edo ez, erramuak eurenak dituela estrapu eta toleta.

UZKARRAK BOTA ZITUN UZKARTIAK ETA PUZKARRAK PUZKARTIAK, BAIÑA ATSA BARDINA ZAN.

Uzkar edo puzkar deitu, alderik ez dagola ondorenetan.

UZKARRA EZKONTZEN ASI TA KAKAGAZ PARRA.

Uzkarra ezkontzen asi ezker, kaka leukela lagun.

UTZIK EZIN LEI UZTU, BETEARI GAINEZKA BAI.

Utzik ezin leukela utzago egin, bete gaiegi bete bai.

UJOLA ETORRAN ETA BILDURREZ ITXASOAN KABIDUKO BA ZAN.

Urlandiak geitzen datozanetako bildurra.

URRA URRA URRA KANTA TA AUZOKOARI APURRA LAGA.

Urra urra asko, baiña auzokoaren errukirik ez.

URTE BARRI URTE ZAR, ARRANTZALIA PRAKAZAR.

Arrantzalea, irabazietan, urtean zear bardintsu dabillalako.

URTE BARRI, URTE ZAR, MARTZELINO PRAKAZAR.

Ala esaten dabe erri askotan.

**URTE ZARRAK BARRIA EKARRI, ARRANTZALEAK
EZ AU IGARRI.**

Urteko irabazietan arrantzaleak goraberarik ez.

URTEAK AINA ULE, BURU ETA BETULE.

Burusoillekaitik esaten da.

**URKULARIK BAKO BATELEAN, SARRI APARIXUAK
NASTEAN.**

Urkulak aparixuak tente erabilteko egur bikotxak izaten dira.

Arrantzaliak eurak ibiltzen dira mendian, arboletatik egokienak aukeratzen, gero azalak kendu eta alaxe erabiltzen dabez aparixuekin.

**URTETIK URTERA TXARRAGO GURE ZARRAK.
URRUMAKA EZ BA DABIZ LO ZURRUKA.**

Zaarrak, itxarrik dagozanetan alkarri urrumaka ibiltzen diralako, eta lo dagozanetan, zurmka.

**UTSEAN BATZUTAN, BESTEAN ESKEAN, GURE
UMEAK EZ DAUKE LOTSARIK KALEAN.**


Andra beartsuak esaten dakie, arrotasunez, umeak garbi ta gizen agertzean. lapurretan barik, zintzo diran pobreen esana.


**UZTAIA GIPUTXAK, OZTARKUA GUK, DENPORALE-
TAN ONDO ULERTZEN GAITUK.**

Uztaia edo oztarkua deitu, arrantzaleak denporaletan ba dakiela zer egin.

UME TXIKINA.

Sagarraren ume txikiña. Barruan eukiten daben azi-biotza.





**ZAKATZA ORI TA BEGIAK ILLUN, ARRAIN AU
FRESKUA DANIK EZ ESAN INUN**

Agalla eta begietan igarten dalako arraiñaren
bizitasuna.

ZAKATZEAN DAGO ARRAIÑAREN IZATEA.

Zakatzaren koloreak erakusten daualako
bere freskuraren egoera.

**ZAPATA BARRIAK, GOIZEAN ONAK, ILLUNTZEAN
ESTUAK.**

Zapata barriak erostean zapatak baiño
begiak geiago jokatzten dabelako.

ZARRAK JUN ETA GAZTEAK NUN?

Zarrak egindako lanik gazteak jarraitzen ez
dabenean.

ZARREN ZARREZ BIZIRIK EZIN ETEN.

Zaartuarren luzaro bizidanagaitik.

ZAZPIKI JAIO ETA IZAN BE ZAZPIKIA DA.

Zazpikia deitzen dause ume urduriari.

**ZABLIN ZABUNKA MAI GAINEAN, OBE LUZE
ETZANDA LO OEAN.**

Lotara joan nai ez da erdi lotan dagozane-
kaitik esaten da.

ZAMAU BARIK EZIN JAN.

Jaten loiak diranekaitik.

ZARBARRIARTE GANBARA UTSIK.

Zarretik barrira bitartean, au da, lengoak
amaitu ta barriak etorri artean.

ZASIAN DABIL ETA BETI ARRO.

Zasian ibili, diru barik ibiltea da.

ZELAKO ZAKATZA, ALAKO LEBATZA.

Zakatzetik igarten dalako bere freskura.

ZELAKO ANTFOBIA? UME MANTOKUAN LAKOXIA.

Itxasotik etortean, zelako arraiña dan, eta txi-
kia dakarrela adierazteko.

ZELATAKA ANDREA, JUAN ZAN AREN BAKEA.

Bein andrea gizonaren kezka asten danean,
aren bakea galdu zala.

ZELAN JAKITEN DA, ZEGAZ EUKI EZKERO.

Edozer be ikasi leikela, dirua ba dago.

ZENBAT IKUSI, AINBAT IKASI.

Ikustea ona dala, ikasteko.

ZEIN IKUSIKO TA ASTUA POLAINEKIN.

Jantzi guztiak ez dirala danentzako egoki.

ZER DA? TXARRI EMIA.

Erderazko berbagaz zer da paretuta.

ZERRALDO EKARRI DABE, ARDURA ANDIRIK
GABE.

Kamillan ekarri dabela jaramon andi barik.

ZEURE ZURDAK!

Joan zaite pikotara, esatea lez.

ZIBOT-ZIBOTOKO.

Barri barri.

ZIBOT ZIBOTOKO TREIÑA EKARRI DABE.

Sare barria ekarri dabela.

ZIKATU PLANA, OUERIDA SANTANA, ZIKATU PA-
PEL, OUERIDO SAN MIGEL.

Eskoletan erabilten gendun esaera, mokoloia
zikatzeko.

ZIRIN ZIRIÑETAN DABIL EGUNETAN.

Bemzkoagaz, diarregaz dabillala egunetan.

ZIRIN ZIRIN AMAMA, OIALA GERTU AMA.

Zarrak zirin-ziringa asten diranean, eriotz bil-
durra izaten da.

ZIRRIKETA MARRAKETA KITARRIA, BOTIKAIXUAN
ALABIA.

Umetako kanta.

ZIRRI-MARRAN URAK. ERRIXUKO BASAK OLGU-
RAN.

Itxas-urak be-bultzadekin asten diranean,
ingurutako basak jasoten dituelako.

ZIRRI-MARRAN OLATUAK, KATEAN ONDO LOTU
TXALUPAK.

Ekaitz andi ezaugarria izaten da.

ZIRZARTEKO GIZONA.

Gauzak arin erabagiten dakiana.

ZORRA NIREA BAIÑO ARENA OBE.

Iñoren zorra obe, norberea baiño.

ZOR ZARRAK ATZE TXARRA.

Zor zarrak ondoren txarra.

ZORO-ZORO ANTONIO, LASTER EURIA DARIO.

Antonio zorongo dabillanean, eguraldi txarra.

ZOR ZARRA, KAKA ZARRA, BETI USAI TXARRA.

Zor zarrak gauza onik ez.

ZORO-ZORO.

Gangar ibili.

ZORO AIZE LARREGI, NEGARRA DATOR ATZETI.

Zoro aize ondoren, laster agertzen dala negar egitea be.

ZOROAIZEA BESTERIK EZ.

Neska gangar, ariña.

ZORAMENA BESTERIK EZ DAUKA BERE LORTU ARTE.

Ekin eta ekin dabillanagaitik.

ZOZKON ANDIA, BAINA BURU TXIKIA.

Itxura andia, baiña zoroa.

ZURDAZKAIZEA ESKUAK BE ETEN.

Zurdazkaizea otz zorrotzekoa da.

ZURKATSAK AZKENEAN BESTEEN ANTZEKO ATSA.

Beretarrak be azkenean besteen modura geratu.

ZURIXE, GORRIXE, KIKIRRIKI.

Umetako esaera.

ZURTZILLO PANDANGUAK KANDELAZ BETETA.

Mokoz beteta.

ZUZKULU MASKULU ERAGITEN, GURE LEPOTIK BARRE EGITEN.

Umetako esaera.

ZURIXE, GORRIXE, KIKIRRIKI...

Umetako jokoa.

Umeak lenengo geldi, kantua kantaten ibiltzen dira. Eta kantuaren azken zatian, besoak buruan ipinita, alkarregaz kurutzatuten asten dira.

Au da kantua:

Maritxu goikue,!

Arek daukaz dindilizkakuak!

"Dindirri" baiño txikixaua.

(Batel txikiko baten izena).

Dirua baiño gauza zikiñagorik ez.

Diruzale amorratua, baiña alperrik gixajua

(Gaisorik egon eta diruagaz baliatu ezin danagaitik esaten da).

Doi-doian dabil Peru, beti atoian.

(Beti iñoren kontura dabillen bat).

Drasta Drasta ataraten eban dirua.

(Dirua erakusten arro diranekaitik).

Dungulu ta guzti esnea artu.

Durundia.—Belarriko durundixe salduko dautsut.

Dzauan dzauan ibiltan zan.

(Arro arro, zabal zabal ibiltan zan bategaitik).

Dakarrena etxe-alde, daroana etxe kalte.

(Batek zerbait ekarriarren, geiago eroaten dabenean).

Emon tollanak eta ixildu bein!

fTolla arrantzatu ondoren geldi erazteko, jo bear izaten zalako).

Emoizu matalazurreko bat.

(Matalazurreko = matrail-azurreko).

Emon ez da a!

(Pertsona zekenagaitik esaten da).

Emonak gaxik ez.

Emona galdua sarri.

Errixetan esandakuak, beroak ekarri eta otzak eruan.

Errekaixek brix.

Errekaixiak brix, Markiñan eurixe.

Emia ta arra, urria ta zidarra.

Eskama asko ta barriketa gitxi.

Etixerik etxe eskian, arima-pielak aidian.

*(Len oiturazko eben emakume batzuk etxerik-
etxe euren illen alde meza dirutan ibiltea,
gabetan illen arimak lo egiten ez eutsela
izten-eta).*

Enplastata lagako zaitut!

Esan asko ta emon gitxi.

(Agindua bat eta emona bi...).

Erlaizeak uretan, aizea or dabil olgetan.

Garagarrak egiten astua, laster da busti lastua.

(Astua bean etzanda dabilienetan esaten da).

Grak eta blast.

(Umetako joko bat).

Gurmak daukadaz.

(Bat berean ez dagoenean).

Gizonak prakak galdu, andriak gonak aizetu.

(Gizonak bere gizontasuna galtzen dauanean, andreak nai dauana egiten dauala).

Gabean kalia eta goizian lo, laster dau txalupak ondua jo.

Gona ta praka zarrak etxian, lapurrik ez zelatian.

Gona barrenak aidian, errekaizia kalia.

Gonapeko alua, egarri askotako zulu.

Gaur da San Juan; biar Juan zan.

Gizona mutu ta andrea ixil, irugarrena nun dabil?

Gose danak arrain fiña baiño lodia naiago.

Goserik ez dau kentzen antxoa txikiak, zabaldu baiño.

Ipar-kaleko errekaizia, galerrenaren aitzia.

Ilda gero itto

Jan da jateko, ilda gero be gosezto.

Juan da jua eta ez ekian noan jua.

Kirkilla, arra kantaria, emia ixilla.

Kukurruku ollarrak, ollandak parrandan.

Korain barik txibitan Pedro gaixua, San Pedrori lez kardamuak jan dautso burua.

Mankala jasota be Tomasa beti sepultur.

(Mankala jasotea illaren urtea igaro ondoren egiten da eleizetan, eta denporak igarota be beti illaren arrenkura eta oroitzetan dabillanagaitik esaten da).

Txilin txilin jotzen, iñunzenteren bat azkenak emoten.

(Txilin-txilin jotea, umeen illetetan jotzen daben kanpaia izaten da).

Zaunka bako txakurra, galdu zan etxean bildurra.

ARRAIN BATZUEN IZENAK

EUSKERAZ	ONDARRUKO ERARA
abario	
abadira	abarizu
abixuia	
abixui	abixoi
abrina	
abrota	ikus kolaixu
aingeru guardakua	
matrana	
sakaraila	aingeru gaurdaku
aingira	
itxas suge	aingiri
aitze kabra	
kabrarroka	
sakaraila	itxas kabri
akermujoia	akermujoi
akula	akuli
alatxa	
kodaka	abalu
aligota	lento
alua	
ikara	arraixi
amarrats	olagarru
amoarrai	
amuarraiña	amu arraine
angula	anguli
antesa	lantesa
aolatza	
pospolua	kosta lasune
antxoa	
bokarta	
albokarta	antxobi
aotadabeta	
lasuna	lasune
arigorri	putxanu
armai-armarrai	

GAZTELANIAZ**ZIENTZI IZENEZ****abadejo****gadus pollachius****pez plata****atherina presbyter****pez angel****villan squatina angelus****anguila****anguilla-anguilla****cabracho
sargo picudo
aguja****scorpoena scrofa
sparus puntazzo
belone belone****alosa sabalo
aligote****alosa alosa
pagellus acarne****raya
pulpo****raya picta
octopus vulgaris****trucha
angula
corvina****salmo trutta
muraena anguilla
johnius regius****muble****motella vulgaris****anchoa****engraulis encrasicolus****muble
arete rubio****mugil auratus
trigla cucculus.**

xabiroia	salbeue
arria	
arrai zabala	arraixi
arrain gaizto	arrain gaiztu
arraingorri	
kurru-kurra	
burriyua	
neskazarra	neskazarra
arrain baltz	
murloi	perloi baltza
arrosala	ikusi BESIGUA
atalua	
peixa	itargi arraine
atun txiki	
atun zuri	
atun berri	agin zorrotza
atun gorri	
ega lagur	zimarroi
atun zuri	
egaluze	atune
auntz arraiña	kabri

babusa	
burusko	
kabuxa	itxas bari
bakallau	makallau
barbariña	barbarine
barbua	barbu
bastanga	pastangi
begiaundi	betandi
berdela	berdela
berlenka	
berrugeta	berlenki
antesa	lantesa
besigu	
arrosela	besiue
bitsarrain	bitsarraine
boa	bobi
botakarra	lantzoi
bollarrain	itargi arraine
bramuna	bramune

arana, escorpion	trachinus draco
raya santiaguera marsopa	raia clavata
perlon	trigla lyra
perlon negro	trigla gurnardus
pez luna	mola mola
bonito	sarda sarda bloch
cimarron	thunnus thynus
albacora-bonito cabrilla	thunnus alalunga serranus cabrilla
babosa bacalao salmonete barbo pastenaca estornino caballa verdel	blenius gattorugine godus morhua mullus barbatus barbus eques triglus vulgaris scomber colas scomber scombrus
perlita. lirio corvina	gadus poutassou sciaena aquila
besugo corcon boga aguja. relanzon pez luna rorcual	pagellus cetrodontus box boops belone belone mola mola balaenoptera phisalus

breka	
imarra	breki
burriota	
gurbi	burbine. kakajali
burriyua	neskazarra
burusko	Ik. BABUSA
buztanbaltza	
koblaka	buztenbaltxe

EUSKERAZ

ONDARROAKO ERARA

dabeta	lasune
donzella	
palabaltza	txistu
dragoi txiki	salbeue
durdo	durdu
ega arrain	txori arraine
egatxubia	
kalmarra	potxa
erla	
muxarra	erraxau
ernabeira	
errebollua	
turbota	errebollu
errege	erregi
errobalo	lupine
erromero	erromeru
erroburu	erroburu
eskallu	eskallu
eskuikara	
ikarayua	aingeru
esperloi	
ezpalarta	esperloi
gaatz galatza	marraxu
gastaka	arrain zabala

breca scyllium stelare

verrugato umbrina cirrosa
escacho trigla lyra

dorada. oblada oblada melanura.

GAZTELANIAZ

ZIENTZI IZENEZ

muble mugel cephalus

doncella julis julis
sabiron tachinus vulgaris
maragota labrus berggylata

pez volador cypselurus heterurus

calamar toradotes sagittatus

mojarra pagellus mormyrus

rodaballo rhombus maximus
pez rey atherina hepsetus

robalo. lubina labrax lupus
remora remora remona
dorada sparus aurata
bermejuela phoxinis loevis

espadarte orcinus orca
cailon lamna nasus
raya clavada raia clavata

gobio	
kabuxa	
murela	mustu
gurbi	burbine
ikarayua	eskuikari
itargi arraiña. Ik. Atalua	
itxas aingira	aingiri
itxas azeria	azerixe
itxas katua	katu
itxas otsua	marmaixu
itxas potzua	lampu
itxas sapua	itxasapu
itxas zaldia	zaldixe
itzuka. Ik. Kolaio	
izoki	izoki
izurde	ixurdi
kaela	kaeli
kaiamua	kaxamu
kalmarra	potxi
kardia	gardi
karraspio	karraspixu
katea	lixa
katu arraiña	tolle
kaxau	kaxau
kolaioa	kolaxu
abriña	
itzuka	
kollaka Ik. buztanbaltza.	
korkoi	lasune, ur oskola
kurru-kurrua. Ik. Arraingorria.	
lamote	breki
lanparda	lanpardi
lanpua	papardu
lantzoi. Ik. botakarra	
lazun. Ikus korkoi	
larlotza	torre
lesa	leatzkumi
lebatz	leatza
lenguana	
miiardai	lenguau
lentoe	Ik. Aligot

gobio
verogato
tremielga

gobius cruentatus
sciaena cirrosa
torpedo marmorata

congrío
zorra del mar
pez de rato
tiburón
palometa blanca
rape, sapo
caballito de mar

conger vulgaris
alopias vulpinus
chimera monstrosa
isurus oxyrinchus
ceasiomorus glaucus
lophius piscatorius
hippocampus guttulatus

salmon
delfín
tirifrcrera
gallano
pota
poquidulce
trigildo
lija
cazón
jula
peregrino, colajo

salmon salar
delphinus delphis
prionace glauca
labrus ilmaculatus
toradotes sagittatus
hexanchus griseus
paracebtropistis
centrophorus squamosus
mustelus asterias
coris julis
sardinellaa aurita

cabezudo

mugil chelo

pagel. breka
lampresa marina
castañola, palometa

pagellus erytrinus
petromizon marinus
brama rayi

cazón
pescadilla pequeña
merluza

mustelus asterias
merlucius merluccius
merlucius esculentos

lenguado


solea vulgaris

blatesa	platuse
pinpiñua	
itxugiya	
pinpiriña	kolaixo
pospolua. lk. Aolatza	
putxano	putxanu
salbera	salbeue
sarbo	sarbu
saburdin	ondar azpiku
sakilo	kabra montesa
salbia	saibi
sarbaiste	sarbaiste
sardina	sardiñi
sarin igarra	sardin zarra
sarrao, lk. karraspio	
saubiya	bobi
serra	arraxi
sola	lenguaua
tintotela lk. Marraixo	
Talamazoka	
Kabuxa	
Murela	Mustu
tolla lk. Katu arraiña	
Tramana	Tramana
trautxa	txautxi
txelba	txelbi
turbota	errebollu
tuxuela	juliani
txermola	txermola
txitu lk. dontzella	
txibia	txibie
txitxare	lanpardi
txitxarro	txitxarru
txoko	txoku
txop	muxarra
txitxi ezpata	akula biriardi
txori arrain	txori arraiñe
uerba	betandi
urrabur	urraburu

solla, platija	plaeurohectes platesa
colayo	galeus helastomus
arete, rubio	trigla lineata
sabiron	tachinus vulgaris
goaito. burro	gobius jozo
arano. escorpion	trachinus vipera
gallineta	helicolenus
salpa, salema	boops salpa
sargo pequeño	diplodus vulgaris
sardina	clupea pichardus
arenque	alosa vulgaris
boga	boops boops
raya. picon	raja batis
lenguado. suela	solea solea
Gobio	gobius cruentatus
chucho, raya	Myliobatis aquila
chopito	
pargo	pagrus pagrus
denton	deux dentex
maruca	molva molva
listado	luthynnus pelamys
chipiron	loligo vulgaris
cria de lamprea	petromizon marinus
chicharro	trachurus trachurus
jibia	sepia officinalis
chopa	spondyliosoma cantarus
pez espada	xiphias gladius
juriola. volador	cypselurus heterurus
caballa	scomber scombrus
dorada	sparus aurata

urta lk. Txelba	
ursuge	dragoi
zabalo	zabalu
zamo	zamo
zapa	zapi
zaparda	zapardi
zimarroi lk. Atunak	
zubia lk. Botakarra	
zola lk. Lenguaua	
zabia	zabia


Rumbos ITXASBIDEAK
 JOERAK
 ZUZENBIDEAK



dragon
 platesa
 carpa
 sapo pequeño
 tenca

callyonymus lyra
 platesa vulgaris
 ciprinus carpio
 batracoides
 tinca tinca

Besigu antzekoa, andiago eta eskama askoduna.



Rosa de los vientos - AIZE-ARROSA

BESIGU DENPORAN

(25-XI. "Santa Katalina noiz,
besigutarako goiz").

Santa Katalina,
liña, liña, liña,
besigutarako
denpora ba ziña!
Baiña egun au noiz
besigutarako goiz.

Ala esaten ekien
gure lengoak,
zer janik ez eukien
asaba gaixoak.
Ogia takian
eroaten oituak
eta sagardaua
edaten buituak.

Beti zorretan
eta lorretan,
iñoren menpeko
eta izeneko
bizi ta ilten
edo ittoten
oitu zirean
asaba onak.

Itxaso aberatsa,
—inpemuko lebatza—
geienetan legor
ta askotan gogor.

Udari itxaro bear
—ortozik ondarrik ondar—
odol indartzeko,
seme argal ta mengelak
atun tato lodiekaz
asi ta adoretzeko.

II

(31-XII. San Txilibristo,
besigua ezpanetatik dindilizka).

Gabonak igaro
ta san Txilibristo,
Martzel Prakazarren
santu begiko...
ezpan baltzetatik
koipez dindilizka
ta praka barririk
ezin erosita

Mariñel gaixua,
betiko mezua:
arrañik ezean
zorrak zor
ta ugaritzean
saltzen lor.

Agur Txilibristo,
urteko zorritzto,
zazpiki guztien
santu begiko.
Arraiña kalatan
ta ezin artu,
ekarten danetan
ezin saldu.

Done Txilibristo,
brisko, brisko, brisko,
urte zarraren giltz!
Zerutanekin itz
ta eska Jaunari
zeiñek egin dautsan
gure bisiguari
ainbeste begizko.

Done Txilibristo,
brisko, brisko, brisko,
besterik ezean
bein bakar bederen,
anantzaleari
barria ireiki,
urte zarrari
pozik eñaz Amen.

III

(17-1. San Anton, "besugos al monton").

Ta gero
san Anton,
besugos
al monton,
esana bat,
izana bi,
korda bat,
korda bi,
kalatan
ekaitzak
ebagi
ta imntsi!

Errekan
tenala,
itxason
kardala.
Ezin ikus
gure tala.
Nekez eldu
anain kala
Kordak jaurti,
lo argala...
sokak jaso
ta itzala

Ba datoz
txalopak
urrunean,
ba datoz
baporak
ke baltzetan.
"Kubiertan"
gizonak
besapeka.
Barratik
umeak
ze-ekarrenka.

Urrun
geratu dira
turmn
eta lurrun.
Barran
galdu dira
apar
eta txipar.
Kaian
kotu dira
kate
ta aríanketan

Nasan zear
gizonak
otzarak uts,
burua makur.
Etxeetan
andrak
samur-samur
gizonei agur.
Neguak
bereak ditu
orrelako
ainbat egun

Amuma zarra
kuma ondoan,
erdi irri,
nai ta larri,
esaera gogoratuz
kanta-kantari:
San Anton
besiguen patroï?
Abereak zaintzen
ba dauka zer emon,
lurgiñak ez daki
arraïña nun dagon.



ARRAIN ETA ITSASKI BATZUEN ITXURAGARRITASUNA

Aingira	= geldi eziña.
Besigua	= nortasuna.
Durdoa	= ezezkortasuna.
Esparroia	= Agin zorrotasuna.
Izurdea	= Argitasuna.
Karramarruak	= Astuntasun eta nagikeria.
Kolaio	= Argaltasuna.
Lapa	= Lotutasuna
Lantzoia	= Ez jakintasuna. Arlotekeria
Lebatza	= Aberastasuna batetik, bai eta arda zaletasuna be.
Makallaua	= Zapaltasuna.
Marmoka	= Zikinkeria.
Marraixoa	= Nastea.
Merlenka	= Biguntasuna.
Mielga	= Auleria.
Mutxarria	= Bizitasun eza.
Papardoa	= Arintasuna.
Salbeoa	= Pozoitasuna.
Sarbo	= Azpikeria.
Sardoia	= Sena.
Sardiña	= Koipea.
Tolla	= Gogorkeria.
Tramana	= Zabaltasuna.
Txirla	= Pitxitasuna.
Urraburua	= Dotoretasuna.
Zimarroia	= Zabarkeria.

